

# BARAKALDOKO ONDARE INDUSTRIALA

“BEGI AURREKO ONDARE IKUSEZINAREN AUZIA”

ALAZNE SESMERO LARA

HISTORIAKO GRADUA, 2022-2023 IKASTURTEA

TUTOREA: JOSÉ RODRÍGUEZ FERNÁNDEZ

GEOGRAFIA, HISTORIAURREA ETA ARKEOLOGIA SAILA



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

LETREN  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE LETRAS

## Laburpena

“Estoy convencido de que si no conocemos personal («experimental») y correctamente («investigar») lo que tenemos, difícilmente podemos amarlo. Y si no amamos lo que tenemos, difícilmente podremos acompañar a otros a realizar este itinerario”. Mitxel Olabuenagak (2021), Barakaldoko historian adituak, esandako hau Industria Ondarearen kudeaketarako funtsezko gako izan daiteke. Egungo Arkeologiak, gutxienez industrialak, iraganean diziplina ezaugarritu izandako monumentaltasun edo estetizismoarekiko lotura nabaria duela badirudi oraindik, “Catedrales de la Industria” pertzepzio horrek dirauelarik, objektu zehatz eta hauen itxura originalekiko fetitxismoaren eskutik. Hala eta guztiz ere, Arkeologia Industrialaren planteamendua aldatuz joan da, eta garapen handia izaten ari da orain. Aitzitik, hainbesteko garapena izan badu, zergatik industriaren zentro neuralgiko izandako Barakaldok arkeologia zein ondare aldetik hain arreta gutxi deitu du? Lan honetan horren erantzuna helburu ez bada ere, ondarearen egoeraren diagnostiko burutu izan da, kontzientziatu eta horren gaineko arreta deitu nahian.

Duela erlatiboki gutxi “Ondarea” objektu materialez gaindiko elementuei egotzi zaizkio; oro har, industria ildoan gutxienez, teoriaren izaera iraultzaile horretatik praktikara salto egitea kosta egiten jarraitzen duela badirudi ere. Behin ondarearen aniztasun eta dinamismoa aditzea lortu denez, horren gaineko hausnarketa eta lan errealak burutzea funtsezko premia dirudi. Hala, paisaia azpimarratuko da, moldaketak jasaten duen paisaiaren iraunkortasun horrek komunitateen identitatearekin bat egiten baitu, iragana orainarekin lotuz. Barakaldoko kasuan izaera eta errealitate postindustrial horren balorazioaren beharra aitortuko da jarraian; horren irudia osatu aldera ondarearen auziari helduz, testigantza grafiko zein ahozkoak erabiliz.

Historia egitean “objektibotasuna eragozte” egotzi zaio gizakiaren propio den sentiberatasunari, Iragan Hurbileko Arkeologia “orbandua” dagoela ulertzen dutelarik oraindik batzuk. Halere, Arkeologia zein Historia zientzia natural ez diren heinean, ondare biziak eskaintzen duen informazio baita gizatasuna ere neurritasunarekin besarkatzeko duten aukera aditzeko da. Ahozkoasuna baliogarri izane, ez soilik memoria eta ezagutza historikoa lortzeko iturri gisa, baizik eta dirauen —eta herrien identitate propioaren markatzaile diren, hiria zentzu komunitarioaz jantziz— ondare

industrial horren kudeaketan ere, diziplinaren esparru teorikoak eta gero eta gehiago azalartzen ari den eskaera sozialak islatutakoa.

Barakaldoren kasua, berezia baino erakusgarria den heinean, kontu guzti hauen ikerketa objektu da hemen, etxebizitza- zein komertzio-gune berrien eta behin eta berriro gertatutako aldaketen eskutik hiri postindustrialak ondarearekiko dituen zailtasunak nabarituz. Izan ere, aitzakiatzat hartu da adibide hau, Arkeologia Industrialaren hutsune zein Ondarearen gaineko problematiken diagnosi orokor bati heltzeko, barakaldarren parte-hartzearekin batera haragitutako hurbilketa.

**Hitz-gakoak:** Industria Ondarea; Arkeologia Industrialak; paisaia industrialak; ahozkotak; Arkeologia Komunitarioa.

**Eskerrak:** eskerrak lan hau osatzeko parte hartutako guztiei, batez ere José Rodríguez Fernández-en tutoretza eta lanari buruz berri izan bezain laster Roberto Montalbán-ek erakutsitako prestutasunagatik, kalean etendako eta atseginez parte hartutako beste informanteekin batera: Ángel Ruiz, J. C. Andrades, M<sup>a</sup> Concepción Ramales, M<sup>a</sup> Rosario Lara, Javier Gómez, Victor Manuel Santos, Casandra Antonella Córdoba, Montse Osa, Miguel Granados eta Iratxe Sebastián.

# **AURKIBIDEA**

<b>1. SARRERA</b>	.....	4.
<b>2. HAUSNARKETA TEORIKOA</b>	.....	5.
2.1. Arkeologia Industrialala eta bere ibilbidea Bizkaian	.....	5.
2.2. Ondare Industrialaren tratamendua Bizkaian	.....	8.
<b>3. BARAKALDOKO ONDARE INDUSTRIALAREN KASUA</b>		
3.1. Interbentzio eta publikazioak	.....	12.
3.2. Barakaldoko Ondarea: iragan industrialaren hondarren trataera	.....	14.
3.3. Barakaldoko inizatibak ondarea ezagutarazteko	.....	22.
<b>4. AHOZKOTASUNA, ARKEOLOGIA INDUSTRIALAREN PREMIA</b>		
4.1. Ahozkotasunaren eskutiko Arkeologia Komunitarioaren premia?	.....	27.
4.2. Ahozkotasuna iturri zein kudeaketa-tresna gisa: Barakaldoko ahotsak		28.
<b>5. ONDORIOAK</b>	.....	31.
<b>6. BIBLIOGRAFIA</b>	.....	34.
<b>7. ERANSKINAK</b>	.....	38.

## 1. SARRERA

Industria gaineko kontsiderapenak garapen nabaria izaten ari omen dira azken urteotan, elementu gehiago eta metodo berriak aurkeztuz gutxienez arlo akademiko-teorikoan, pixkanaka ondare legeetara salto egin duena. Hauek guztiek Bizkaiak, eta batez ere Ezkerraldeak, duen potentzialtasuna nabaritu izan dute jada luzaro, meatzaritza, siderurgia eta itsasadarreko testuinguruaren aberastasunetik abiatuz. Giro honetan garatutako ekintza, proiektu eta ondarearen kudeaketen izaerak ea teoriarik proposatutakoa praktikara eramanez baduen aztertzea logiko dirudi, lan honetan bilatuko dena. Horretarako Barakaldoko eredu hartuko da, Euskadiko hirigune handienetariko baita eta industria-garaitik transformazio erradikalenetariko pairatu baitu.

Lanaren nondik norakoei hurbiltzeko, iturri anitzen kontsulta eta azterketa burutu da metodologia ezaugarritzeko. Oinarritzeko Arkeologia Industrial (AI) eta Ondarearen gaineko lan akademikoez gain, dibulgazio-izaeradun iturriez josita egon da lana, industriaren hondarren gaineko pertzepzioa interes handiago izan duen heinean. Horretarako, Industri Ondare eta Herri Lanaren Euskal Elkarte zein Barakaldoko Udalak bultzatutako *Ezagutu Barakaldoren* web-orriak funtsezko izan dira. Gainera, egunkariak jasotakoa erabili da behin eta berriro, ezagutarazten —eta, kontrarioki, albistetan agertu ez— denaren gainean hausnartzeko. Azkenik, ondarearen ezaguera eta pertzepzio erreala lagina hartzearen, Barakaldo zentro inguruan zein Lutxanako auzoan elkarrizketak<sup>1</sup> burutu dira, Roberto Montalbán gain —espresuki aukeratua izan dena— kaletik ausazko indibiduoek galdetuz eginak. Gainera, egileak ateratako argazkiez josita ere ageriko da lana, ondarearen diagnostiko egiterako bidean oso lagungarriak.

Hau esanda, lanaren dinamika aurkezteko, hasieran gaia zein AIA eta ondarearen egoera kokatzeko hausnarketa teoriko baten planteamendua burutuko da, Bizkaiko panorama ulertu aldera. Hala, Barakaldora salto egingo da, bere izaera industrialak utzitako irudi akademiko-kulturala adituz, hiriaren berezitasuna eta industriaren hondarretatik jasotako ondarearen posizioa ulertuz. Azkenik, ondare horri heltzeko ahozko iturrien beharri men egingo zaio, informanteen testigantzen eskutik. Hori izango da, alegia, lanaren azken helburua: aditu eta administrazioak eginiko esfortzuen ondorioak

---

<sup>1</sup> Elkarrizketen gidoia eta bakoitzaren fitxak ikusteko eranskinetara jo.

neurtzea, eta Arkeologia Komunitarioak defendatzen dituen metodoen zerumugari heltzea, Barakaldoko oihartzunak jasoz lortutako laginen bitartez.

## **2. HAUSNARKETA TEORIKOA**

Lanarekin hasteko, gaiaren kokapen eta hurbiltze teorikoa egiteko ahalegina egingo da, AI zein Ondarearen egoera orokorrari men eginez, jarraian Bizkaiko ibilbide eta errealitatea ikusi eta gerora Ondareak izandako tratamendua aditzeko.

### **2.1. Arkeologia Industrial eta bere ibilbidea Bizkaian**

Biziki loturik agertu da AIA bere hasieratik industria-hondarren ondare-balioari. Edonola, arreta deitzen du hasieratik arkitekto, ingeniari, soziologo, ekonomialari eta tokian-tokiko historialariek presentzia handiago izan izana, historiagile eta, batez ere, arkeologoei konparatuz. Honek Arkeologiaren metodologiatik atko interbentzioak hedatzea ondorioztatu zuen, industriaren arloa “erlikia” izatera pasaz denboraz; Gutiérrezek (1997, apud Cano, 2021) seinalatu bezala, Arte, Arkitektura edota Teknikaren Historiaren planteamenduei lotua agertuz, katalogo izaeran estankatua. Edonola ere, jada Buchananek (1972, apud Casado, 2009a) esan bezala, AIak inbentariatzean zentratzeak bakarrik, testuinguru historiko sozial eta teknologikoan izandako proiektioan murgiltzeko aukera desaprobatzea izango litzateke. Gainera, AIA diziplinartekotasunaren eredu eder izan daiteke, arkeologoez gain ingeniari industrial, arkitekto, baita soziologo eta antropologoez osatutako taldea ideal izanik.

Askotan aditu omen da, ordea, industriaren ikerketa arkeologikoa ezbeharrezko gisa, “puede ser considerado por alguno como un puro divertimento intelectual, una cómoda visión de esteta” (Ibañez *et al.*, 1988: 5) esaldian ederki jasoa; eta baliteke aldarrikapen horrek zentzu izan izana, AIA inbentario sinpleetara mugatuz jarraitu balitz. Hala da nola, Negrik (1978: 15, apud Casado, 2009a) jada 1970. hamarkadan era oso argi baten adierazi zuen “la atención tiene que trasladarse de las cosas a los hombres”, eta diziplina lehen fase interpretatzaile batetik historia eraikitzaera pasa behar zela. Diziplinaren birplanteamendu baten beharra aldarrikatzen zen, metodologia, iturri eta lan-moduen berrikuspenaren alde, ikuspegi mugatutik berpizkunde bat izatera pasatzeko. Horretarako, lehen pausua “industrial” den horren definizioan lan egitea funtsezko izan zen.

Ze da ba *industrial*? Terminoak ikerketa-objektua mugatzeko funtzioa du, baina kontzeptu anitz eta konplexu gisa ulertua. Mundu industrialarekin erlazionatutako oro izanen omen da ikerketa objektu; ez soilik makineria, fabrika, azpiegitura eta modelo monumental horiek, baizik eta industria-eremuen eraginpean garatu eta bizitako bestelako elementuak ere: langile-etxeak, kooperatiba, etorkin-zentro, urbanismoaren goitik beherako aldaketa bortitzak, paisaia, baita pertsonak beraiek ere. Azken hauek dira, alegia, nahiz eta AIak errealitate industrial barrukoak aitortu, askotan —ia beti ez esateagatik— ikerketaren kanpo utzi direnak: ahozko testigantzak. Jada Cárcamok (1995) aditu bezala, AIak Arkeologiaren teknika eta metodologiak propiora ekartzea eskatzen du, metodo tradizionalaz —lekukotasun, argazki zein marrazkiez— gain, ahozko iturri zein teknikak ere jasoz, tradizio dokumental luzeko ikerketek askotan gainetik pasatakoak. Gonzálezek (2008) berebiziko garrantzia ematen dio ahozkotasan horren aprobetxamenduari, materialtasun eta dokumentuez gain interesgarri eta dinamikoago ager daitekeen iturritzat ulertuz, hau aurrerago sakonago garatuko delarik. Gainera, AI barruan ulertu beharko litekeen azken kontu bat dago, interes fokuetatik aldendua askotan: errealitate postindustrialia, iragan hurbilean zentro industrial izandako gune berri transformatuak eta hauen pertzepzio diakronikoa.

Ikusi bezala, jada 1970. hamarkadatik diziplina berrikusteko premia nabaritu izan da, ikerketa-objektu zabal baina definitu eta metodologia propio eta egokiago baten beharra azpimarratuz. Baina eman al da aldaketa hori, gutxienez, Bizkaiko testuinguruan?

### ***Arkeologia Industrialia Bizkaian***

Logiko den bezala, AIaren hastapenak Ingalaterrako testuinguruan 1960. hamarkadan hasitako interesei lotzen zaizkie, Industria Iraultzak utzitako monumentu eta teknologiaren testigantzei erreparatuz. Euskal Herrian, Bizkaian, hain zuzen ere, industria inguruko interesaren pizgarria ez zen baino industriaren krisi eta desindustrializazio prozesuaren baitan emango, 1970-80ko hamarkaden besarkadan. Koiuntura hartan, abandonuak jotako eremuen problematika eman zen zonalde industrializatuetan, aipamen berezi duelarik Ezkerraldea, non urbanismo eta herri-planteamenduen kezka larri bihurtu baitzen.

Gutziz zentzuzkoa da, hala, Espainia mailan AIA, diziplina zientifiko gisa, Bizkaian agertu izana lehenik, 1982an Bilbon emandako *Ondare Industrialaren Babespen eta*

*Birbalorazioaren gaineko I Jardunaldien* eskutik. Eusko Jaurlaritzak eta *Generalitat de Catalunya*ko Kultura Sailek, unibertsitateko aditu eta ingeniari industrialen eskolekin batera, haien kabuz isolatuki aritzen ziren adituak —historia ekonomiko, tekniko eta arkitektonikoak— kontaktu zuzenean jarri omen zituen lehen puntua izan zirelarik (Cárcamo, 1995). Helburuak ikerketa lana bultzatu, erakunde, enpresa zein biztanleriaren sensibilizazioa eta elkarte bat osatzea zirela, aldaketaren norabidea markatu zuten, inizatiba bakunak benetako bilera komun baten elkarlotuz, nazioarteko erakundeen presentziarekin batera (IOHLEE, 2017).

Bizkaiak jada izan zuen premia Teknikaren museo bat irekitzeko urte berdin horren amaiera aldetik. Barakaldoko Udalak beregain hartu zituen *Altos Hornos de Vizcaya*ren (AHV) Lutxana auzoko jabetzak, non *Orconera Iron Ore*ko meatzaritza-burdinbidearen terminal ohia baitzegoen; pabiloi hori aprobetxatu nahiko zen, alegia, Euskadiko Teknika Museoa eraikitzeko Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzeaz. Proiektu batzuk planteatuak eta azpiegiturak txukunduak zeudela, eta 1990an jada museoaren inguruan ideia-lehiaketa bat egin bazen ere, berehala inbertsioen etete eta museoa bertan behera utzi zen, proiektua atzeratuz mugagabeki. Bestalde, gerora ikusiko den IOHLEEz gain, beste hainbat taldek lan egiten hasi ziren Euskadin industria ondarearen alde —*Asociaciones de Amigos del Ferrocarril*, *Asociación de Amigos del Museo de la Minería*, etab.—. Gainera, testuinguru hartan jada 1984-88 bitartean Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren deialdiez baliatuz, euskal irakasle ugariak AIaren aurkezte eta diziplinarteko esperientzia anitzak bideratuko zituzten, nabarmentzeko izanik Barakaldoko *Instituto Politécnico de Formación Profesionalenak* (Cárcamo, 1995).

Izan ere, diziplinarako berebiziko izango litzateke AFGA enpresa eta Deustuko Unibertsitateko DEIKER, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin batera, argitaratutako funtsezko bihurtutako trilogia: *Arqueología Industrial en Bizkaia, Gipuzkoa y Alava* —1988an Ibañez, Santana, Torrecilla, Zabala eta Yañizek eginak—, bakoitzak tomo bana izanik. Argitalpen hura estatuan aldaketa-markatzaile izan zen, AIA diziplina gisa beste maila batera igoz eta aukera mugagabeko etorkizunerako ikerketetarako atea irekiz. Hala, horren ondoren gaur arte publikazio sakon anitzen agerpena egon da, adibide gisa 2021an Agustín Azkarate, J. L. Solaun, Víctor Araújo eta Mainer Marañaren *Galdamesko meatze paisaia: Nerbioi ibaiaren ezker aldeko meatzaritzako kultura*



*ondarea* eta aurten Amaia Apraizen *Horma-arteak eta beirateak industria-higiezinetan: Jarraibide metodologikoak* izanik.

Hala, Bizkaian agerikoa izan da industriaren gaineko interesa. Gainera, jada aurretik ikusi bezala, AIA hedatu eta ulertzeko modua dinamikoago bihurtu eta perspektiba aldaketa aitortu egin da, objektu sinpleetatik haratagoko irakurketak aldarrikatuz.

## **2.2. Ondare industrialaren tratamendua Bizkaian**

Jada *Arqueología Industrial en Bizkaia* liburu aurrendari horretan halako aldarrikapena egin omen zen, esanez industriaren testigantza zela “una de las experiencias visuales de mayor impacto que asaltan al viajero que visita Bizkaia”. Horren bidez, balio historiko eta ezagutza aldeak ez baztertuak baina aldiz ez azpimarraturik, beste irakurketa bat eman zioten aferari “su grandeza se fundamenta en que al redescubrir el verdadero valor de elementos [...] habitualmente despreciados, proporciona a la comunidad contemporánea un instrumento que le permite reconocerse en las huellas de su pasado inmediato” (Ibañez *et al.*, 1988: 3, 6). Ideia horiek kontuan izanik, onerako ala ez, AIA industria-hondarren ikerketa eta kontserbaziorako tresna bihurtu dela esan ahal da, ondare-kudeaketarekin estuki lotua. Horri jarraituz, Euskadiko 2019ko Ondare Legeak berrikusi egin du Industria Ondarearen afera, esandako aurrerapenak adituz eta aurreko lege-markoaren berrikusketa burutuz. Edonola, esan beharrekoa da kontuaren gaineko pertzepzioaren pitinkako eboluzioa eman dela arlo juridikoan azken urteotan (*Taula 1*), gutxinaka jasoz joan duena industriari lotutako ondarearen aukera oro.

Nabarmentzeko iruditzen zait, nolanahi, arlo juridikoan Ondare Industrialeko Plan Nazionalaren perspektiba irekia. Honek jada 2015rako aditu zuen “el patrimonio adquiere una visión más global, antropológica y de proceso histórico que la puramente arquitectónica”, baita paisaiaren balioa aurkeztu ere, esanez “son de carácter evolutivo[...] constituyendo un escenario privilegiado para la observación de las transformaciones y los usos que las sociedades han hecho de sus recursos” (Ministerio de Cultura, Educación y Deporte, 2015: 9, 12-13). Garrantzitsua iruditzen zait linea hauek azpimarratzea, antzinako zerbait berreskuratu baino, ondarearen ikuspegia zabaldu eta paisai postindustrialaren ideia zeharka aurkezten duelako: ikerketa-objektu eta ondare bizi bezala aitortuz, monumentu hiletatik haratagoko elementua. Dena den, jada marko juridikoak aditu bezala, industriak eragindako inpaktu oro da gaur

diziplinaren ikerketa-objektu. Lan honetan, ikerketan puntu pisudun gisa ulertzen denez memoria kolektiboa, horien artean ahozkotasuna nabarmenduko da; hau ez baita lehen eskutiko informazio bizia soilik, baizik eta erreferentziazko elementua ere, errealitate industrial, kultura material eta horien eskutiko arlo antropologikoaren ikerketa hornitzeko hurbilpen modu gisa (Sobrino eta Sanz, 2019).

**TAULA 1. Bizkaiko Ondare Industrialari dagokion marko juridikoa (1990-2019)**

	<b>1990ko Euskal Ondare Legea (ohia)</b>	<b>Paisaiaren Europako Hitzarmena (2000)    Euskadin 90/2014 Dekretua</b>	<b>Plan Nacional de Patrimonio Industrial (2015)</b>	<b>2019ko Euskal Ondare Legea (indarrean)</b>
<b>Industria Ondarea (kontzeptu orokorra)</b>	Ez.	Zeharka, inplizituki.	Bai (plan osoa horren inguruan).	Bai (horri dedikatutako hiru artikulua).
<b>Industria Ondarea: kontzeptu tradizionala (“<i>makinismoa</i>”)</b>	Ez	Ez.	Bai. Instalazio, lantegi, azpiegitura, tresna, makineria eta piezak, etab.	Bai. Instalazio, lantegi, azpiegitura, tresna, makineria eta piezak, etab.
<b>Industria Ondarea: kontzeptu irekia (ahozkotasuna eta paisaia)</b>	Ez.	Bai. Paisaia industrialaren zeharkako aipamena (“industria-eremuak”).	Bai. Oso garatu eta nabarmendua. Paisaia industrialaren zeharkako ahozkotasunaren garrantzia.	Bai. Industria jarduerarekin lotutako oro jaso du. Paisaia eta ahozkotasunaren zeharkako aipamena.
<b>Industria Ondarearen kudeaketarako irizpide eta interbentzioak bideratzeko ahalmen zein prozedurak.</b>	Ez.	Bai. Paisaia egokitasunez babestu, kudeatu eta antolatzeke irizpideak.	Bai. Babes eta interbentzio irizpide oso zehatz eta garatuak.	Bai. Berrerabilera sustatu, bateragarri izatekotan kontserbazio zein eta babesarekin.

Lege-markoa aldera utzita, nola landu omen da egoera Bizkaian? Kultura Ondarearen Zentroaren (2022a) izendapen eta argitalpenei begira, egian, aldaketa nabarmenik ez dela eman esan daiteke, azken hamarkadan egitura berezi —zera artistiko-historikoei begira— eta antzintasun gehiagoko horien gorengoa mantendu baita. Bizkaian izendapenen gehiengoa baserri, jauregi eta dorretxeak izan dira eta, industria-arloan, esanguratsu agertu direnen artean, monumentu-izaerakoak —Portugaletoko Babcock

Wilcox (2012), La Reinetako funikularra (2014) eta La Navaleko ontziola (2022)— eta, AIko zera dinamikoago bati men egitekotan —Babardun ibaiko arroko paisai industrial (2017) kasu—, burdinola eta errota tradizionalekin lotuago agertzen da. Nahiz eta teorikoek AIaren norabide-aldaketa eta freskotasuna aldarrikatu izan, administrazioaren errealitateak oraindik aldaketa horren itzal argirik erakusten ez duela badirudi.

Edonola, Ondare Industrialaren kudeaketan bereziki arriskutsua agertu da fatxadismoaren fenomeno, Ezkerraldean izugarria, Ibañez *et al.* (1988) azpimarratu bezala, bereziki mugatzaile eta arriskutsua delako meatzaritza eta siderurgia zentro izan diren eskualdetan. Tradizionalki elementu artistikoen goreslea ematen da, dena ezin dela babestu aitzaki izanik; hala, babespenaren fokua 2. mailako izandako horietan — ofizina, kapera, etab.— jarri egiten zen, batez ere ohikoki hirigunean ezarritako instituzio edota zerbitzu-publikoetan, eta ez hainbeste produkzio-guneetan, protagonistak, estetikan zentratu ez direnak, baizik eta praktikotasunean. Hala, industriatik jariatutako horiek ez ziren estetikoki nabarmendu Ezkerraldean —elementu bakar batzuk kenduta, Bizkaia Zubia kasu—, hori izan delarik ondarearen balioa aditzeko eragozpenetariko bat, bere kontserbazioari mesederik egin ez diona. Produkzio-guneek bide naturalari jarraituko zioten hala, desagertuz gehiago funtzionatzen ez zutenean. Egian, oso gutxi berrerabili eta besteak kenduko ziren hirigintzaren alde. Barakaldoko *Ercros* pabiloi zein Alzola burdin-zubiaren kasuan, Euskal Ondarearen Inbentarioan agerita ere babespenarako neurri errealik gabe, Udalaren begipean euren eraispen partziala emango zen 1990ko hamarkadan.<sup>2</sup> Iraundako horiek, ordea, paisaia berriaren parte bihurtuko ziren, gaurkoa: diakronikoa, postindustrial, non oraindik elkarrekintzan aritzen diren elementu zein pertsonak eremu berdinean, aktibo dagoena sozioekonomikoki; eta ez denboran izoztua, baizik eta oraingo errealitatean testuinguratua. Hori agertzen zaio interesgarriago arkeologoari, alegia (Ibañez *et al.*, 1988).

Han sartzen da hurrengo zera: ondarearen kudeaketa. Babes eta esku-hartze egokiak bideratu beharrekoak dira aztarnen ezaugarriei erreparatuz: Eusko Jaurlaritzak babespena aitortua ere, elementu askorekin zer gertatuko ote den jakin ez eta itxaro-

---

<sup>2</sup> Berriek “El Ayuntamiento de Barakaldo no ha mostrado nunca el mínimo interés por conservar el patrimonio industrial del municipio, que tiene un gran valor cultural. Concede autorización de derribo solo para dejar suelo libre” jasoko zutelarik (IOHLEE, 2019a).

egoeran mantenduak dira mugagabeki, ziurtapenik gabe, abandonatuak. Egoera horren kontra interbentzio aukerek ez dute mugarik, batez ere higiezin kasuan, berrerabiltzeko funtzio-publikodun —entitate pribatuek garatu dezaketena ere— edozein aukera jorratu ahal baita: museo —Bizkaian nabarmentzekoak Gallartako Meatzaritza Museoa eta Balmasedako *La Encartada*, besteen artean—, merkatu, kirol-, arte- edo bestelako gune bezala —enpresa-garapenari bideratutako Ilgner eraikina, Bilboko Alondegia kultur- eta kirol-gune bihurtua, etab.— (Ibañez eta Zabala, 2002). Ibañez *et al.* (1988) sormena muturreraino zukutu beharra aldarrikatu zuten jada, instituzioen ezaxolaren aurka planteamendu anitzak egotea oinarritzkoen adituz.

### ***Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarte***

Izan ere, Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarte (IOHLEE) ondare industrialaren aldeko borrokan kementsuen ageritako aktorea izan da, Euskal Herrian 1988-89 inguruan eratu zena interes eta kezka berriei erantzuteko. Bere helburuak Ondare Industrial eta herri lanaren kontserbazio, ikerketa, inbentariatze eta hedapena izan dira, ez soilik Bizkaia baizik eta Gipuzkoa, Araba eta baita Nafarroatik ere zabalduz. Hala ere, haren leloak argi utzi bezala “por la protección de las ciudades, el patrimonio arquitectónico y la obra pública en Euskadi”, urbanismoaren transformazio bortitzen ondare-suntsiketa aurreko erreakzio gisa sortu zen, herrien despertsonalizaziora eramango lukeen bidearen aurka, ondare historiko-artistikoaren kontserbazioaren alde jarritz (IOHLEE, 2019b). Orduan, elkarte honen kideak arkitekto, ingeniari eta profesional anitz omen dira, arkeologia-kutsurik gabekoak egian; hala, gaurko ikuspegiaz, IOHLEE AIArentzat mugatua edo “zaharkitua” dirudien perspektiba bat defendituz aritzen dela kontuan izateko da. Alabaina, nahiz eta ikerketa arloan pixkat mugatua gelditu, ondarearen kontserbazio eta hedapenerako sekulako lana egin omen du elkarteak. 2012ko *Euskadiko Industria Ondarea I eta II* liburukiak IOHLEEk burututako proiektuaren —1990-1994an hasi, 2004an eguneratua— zenit izan dira, Eusko Jaurlaritzak bultzaturik ia 3.000 elementu jaso dituztenak Euskadin, hauen ezagupen eta kudeaketarako funtsezko (Herrerías eta Zabala, 2012).

Gainera, IOHLEEren papera gako izan da ondare industrialarekiko bortizkerien salaketan eta prebentzioan: Interes Kulturalako Ondare deklaratzeko eskaera eta publikazioak hedatzea —seihilabetero buletina— bultzatu egiten ditu (Cárcamo, 1995). Hala, larrizko interbentzio ugari protagonizatu dituzte, arestian esandako *Ercros* pabiloi

eta Alzola tren-zubia salbatuz eraispenetik eta, arrisku jarraitua ikusiz, hauen babespenerako mobilizazioa gauzatzuz, adibidez (IOHLEE, 2019a). Hala, iritzi publikoa jakinaren gainean jartzea helburu izanez, instituzioen erantzunen eskasia edota ezaxola salatzen dute askotan: industria ondarea babesteko kanpainak eratzen dituzte, gizartearen inplikazioa bilatuz, batez ere aktore sozial eragile nagusienena — administrazio, sindikatu, elkarte— (Ibañez eta Zabala, 2002) eta guztiz irekia eta oso konpletu den web-orri bat ere badute —<http://www.patrimonioindustrialvasco.com>—, non industriaren gaineko berriak igotzen baitiren.

### **3. BARAKALDOKO ONDARE INDUSTRIALAREN KASUA**

Industrializazioak Euskal Herriko potentziala aditu zuen XIX. mendetik, eskualdeko historiaren ezinbesteko markatzaile bihurtuz, burdinarekiko tradizioari lotua eta gerora meatzaritza eta siderurgiaren *boom*ek baliatua. Izan ere, gaurko Bizkaia eta, bereziki Ezkerraldea, XIX-XX. mendeetako prozesu industrialen muturreko aldaketen ondorio garbi eta, baliteke, txukunenak dira, euren paisai zein bizimodua goitik behera aldatuak izan dituztenak. Hala, hainbeste inpaktu izandako prozesu horien ikerketa gauzatzeko, ardatz eta dokumentu bizi gisa ulertzeko da ondare industrial; ez soilik makineria edo industria ekintzetarako zentroak ikertuz, baizik eta jendea ere, euren bizileku, toki sozial eta iraun duen memoria eta testigantzak, beraiek baitira AIaren metodologiaren freskotasuna, alegia. Izan ere, AIa ez datza “presentar una colección de piezas de anticuario”, baizik eta “de profundizar en el conocimiento de las estructuras históricas de un territorio” (Ibañez *et al.*, 1988: 6), eta Bizkaiaren ikerketa-potentzialak ederki egokitzen zaio ulermen horri. Barakaldokoa bereziki, Euskal Herrian azken hamarkadetan ia aldaketa bortitz handiena jaso duen gunen heinean.

Hala, arestian ukitutako Euskadiko marko teoriko-juridikoaren irismena aztertu aldera, Barakaldoren kasuistikan ezarriko gara jarraian, Ondare Industrialaren inguruko aferen egoerari hurbilduz eta aurretik ikusitako AIaren aurrerapen eta ondarearen gaineko kontzientziazioaren hedapena eman baiten ikusiz.

#### **3.1. Interbentzio eta publikazioak**

Hasteko, arlo dokumentalean zer egin den ikusteko, Barakaldon industriaren inguruko interesa beti piztua egon dela esateko da, izaera desberdinetako lan anitzak erditu

dituena. Ibilbide bibliografikoa lan honen premia ez den heinean, Txeru García (2009) burututako bilduman oinarriturik, Barakaldoko industriaren gaineko publikazio eta egile esanguratsuei hurbilketa labur bat egingo zaio elizatearen inguruan egindako idatzien izaera aditzeko.

Hasteko, oinarrizkoena den Maite Ibañezen Foru Aldundiak bultzatutako *Barakaldoko monografia* (1994) legoke, baita auzo zehatzetan zentratutako horiek, egile askoren kolaborazio zein hemen elkarrizketatutako Roberto Montalbánen edizio lanarekin eginiko *Lutxana* (1995) kasu. Are gehiago, ikerketa sakonak egin dira ere: Joaquín Cárcamo *et al.* Barakaldoko langileen etxe merkeen inguruan; baita Iñaki Bilbaoren *Tipificación y desarrollo pictórico del contraste claro-oscuro en el paisaje de la Margen Izquierda de la Ría de Bilbao* (1995) zein Xavier Barrutiaren *Altzairugintzaren ibilera eta berregituraketa: Altos Hornos de Vizcaya* (1999) EHUko tesi doktoralak ere.

Edonola, lanak baino, egile esanguratsu eta hauen lan ildoak jasoko dira jarraian, Barakaldoren inguruan eskura dagoen informazioaren profila aditu aldera. Esandako Ibañez eta Cárcamo gain, M<sup>a</sup> del Mar Domingo eta Ana Julia Gómezen etxe merkeen inguruko lanak; Emiliano Fernández de Pinedoren enpresa siderurgikoa eta arlo sozialean zentratutako publikazio desberdinak; Gorka Pérez, lan gehien dituena, gehienak arkitekturen inguruan; J. Eugenio Villar Ibañez, industria eta bere ondarea jorratutakoak eta, azkenik, Mixel Olabuenaga dago, Barakaldoko historia osoan aditua eta publikazio akademiko zein dibulgatzaileak egin dituena haren ezagueraren alde. Hala, lan anitz egonda ere, oro har historia eta soziologiaz aritutakoak dira, ez egungo ondarearen kontuen ingurukoak. Gainera, publikazioen gehiengoa 1990ko hamarkadan metatzen dela ageriko da, oraindik noizean behin argitalpenik badago ere proiektu gaurkotuagoak faltan botatzen dira.<sup>3</sup>

Edonola, Barakaldo ukitzen duen A Iri berez dedikatzen zaion —eta aurreko atalean komentatu ez den— lan zehatzik ez dago. Interbentzioek ez dute, aldiz, egoera hoberik erakusten, A Itik miaketa bakar bat gauzatu delarik. Zehazki, Udalak subentzionatu eta José Ángel Lecandak zuzendutako *Luchana Miningaren trenbide desagertuarena* — Barakaldoko txikiena, Errekatxotik kargalekuetara minerala eramateko 1887an egina—, 2002an Arkeoikuskan argitaratua. Trenbidearen trazua ondare gisa aldarrikatzeko

---

<sup>3</sup> Udalak Barakaldoko historia jorratuko duen bolumen anitzeko lana adituei enkargatu diela badirudi baina, Olabuenagak (2021) salatu bezala, oraindik ez dago horren berririk.

premia atzean, Barakaldoko Udalak horren potentzialtasunaren eskutiko ekimenak prestatzeko helburua zuen miaketarekin —“rail to trail” delakoa osatzeko, oinezkoentzako “aisia-kultur” bide bihurtzeko— (Lecanda, 2002), trazuaren gaineko paseo gisa haragitu zena 2010an (El Correo, 2010).

### **3.2. Barakaldoko Ondarea: iragan industrialaren hondarren trataera**

Irudimen kolektiboan Barakaldo arkeologikoki “sasi-antzutzat” hartua izan da, industria —historiaren aztarnatzat hartzen bada ere—, badirudi oraindik ez dela argiki “arkeologiko” tipiko den horren ulermenean sartu, gutxienez kontzepzio orokorrean; bestela esanda, nolabait Barakaldo “aztarna arkeologiko oparorik gabe” egotea, guztiz bateragarria dirudi “industriaren arrasto aberatsak” izatearekin, Olabuenagaren (2021) hitzek isla dezaketen bezala. Alegia, honek lagundu du “La originalidad barakaldesa quizá no haya que buscarla en un pasado remoto sino en un pasado más cercano [...]. Delante de nuestros ojos aun [...], se conservan algunos restos de lo que ha sido el Barakaldo reciente: un Barakaldo minero y, sobre todo, industrial” adieraziz. Perspektiba berri horietatik Barakaldon azken hamarkadan perspektiba aldaketa ematen ari da, ondarearen kudeaketan aditua. Eskari sozial berriaren esku, industriaren aztarnak erlikia izatetik ondare historiko-kultural izatera pasa dira, memoria kolektiboaren testigu eta, gainera, irteera ekonomikoa izan dezaketenak turismoaren aldetik (Homobono, 2006). Hala, hauen berreskurapena emateko planak eman dira —2001ko *Fabrika zaharrak: erabilera berriak* gisako lanetan aditzekoak—, musealizazio, bergaitze edo bestelako eratan.

Izan ere, Barakaldon hastapenak 1992an abiatutako *Bilbao Ría 2000* desindustrializazioaren ondorioei aurre egiteko proiektuarekin eman ziren, hiri transformaziora eta industriak utzitako zoru urbanizagarria berreskuratuzera Bilbo inguruko Udalek bideratutakoa. Hala, Barakaldoren kasuan, industriak ezaugarritutako Urban-Galindoko zonaldea ezagutezin geratuko zen, urbanismo eta aisi zona berrien eskutik. Hala ere, moderazioaren bila, elementu batzuk mantendu edota zaharberritu eta ireki ziren —Gasolino eta Desertuko geltokia mantenduz edota Franco-Belgaren kargalekua moldatuz— (Bilbao Ría 2000, d.g.).

Hirigune bertan txertatutako aztarnak daude gainera, udal hiltegi ohia kasu, gaur egungo Hizkuntza Eskola, oso ospetsu egin dena bere birgaitze arrakastatsuegatik. Bestetik, herriko plazako merkatua (*Irudi 1*), nahiz eta hiltegiak izan duen transzendentzia lortu ez izan, Barakaldo industrialeko eraikin esanguratsuenetarikoa izanda berrerabilpen arrakastatsua izan du ere, beheko aldea merkatu izaten jarraituz, goikoa gimnasio den heinean; gainera, barnealdea pixka bat egokitu bada ere, fatxada zein barnea ia ukitu-gabe utzi eta bizirik dirautela, jakiak igotzeko gantxoan presentzia adibide eder izanik. Lasesarreko alondegian (*Irudi 2*), luzaro sasi-abandonatua egon dena, duela gutxi Udalak *Fundación de Trabajadores de la Siderurgia Integral*ekin eginiko hitzarmen baten eskutik bultzatutako *Escuela de Aprendices del Siglo XXI* ireki egin du, zaharberritze sutsu baten ostean.<sup>4</sup> Eskola honen kutsua azpimarratzeko da, hau bultzatutako fundazioak AHVko hezkuntza-metodoen berreskurapen-nahitik ateratako proiektua izan baita (Barakaldo Digital, 2021), Barakaldoko izaera industrialaren arrastoan metamorfosi bezala ulertu daitezkeelarik hau bezalako birjaiotzeak. Bestalde, ondarearen berreskurapena askotan pribatizazio prozesu baten ondorioz hirigintzan kamuflatu egin da, funtzio berriarekin —adierazgarrienak AHVko ofizinak direlarik, egun adindunei zuzendutako tutoretzapeko apartamentuak—.



**Irudi 1 eta 2.** Udal merkatua, goiko aldea gaur *BasicFit* gimnasioa (fatxadako kartelak erakutsi bezala). || Udal alondegia ohia, gaur guttiz birmoldatua, hezkuntza zentro izanez.

<sup>4</sup> Aurretik eraikin erdia zerbitzu sozialetara zuzendua egonda ere, beste erdia egoera oso okerrean zegoen.





**Irudi 3 eta 4.** Lutzana eta Desertuko tren geltokiak, gaur egun aktibo.

Burdinbide-ondareari begira, Barakaldo XIX. mende bukaerarako bost burdinbideen presentzia izan zuen (Ezagutu Barakaldo, 2022), gaur egun horietariko bat bakarrik — Bilbao-Portugaletekoa (1888), egun Aldirikoak Bilbo (RENFE)— aktibo badirau ere — Desertu eta Lutzanako geltokiak (*Irudi 3 eta 4*) bizirautea eragin duena<sup>5</sup>—, besteak oraindik paisaian presente daude era batean edo bestean: Franco-Belgaren (1880) trazu eta hirigintzan utzitako tunel eta zubiak Dolores Ibarri bidegorria (*Irudi 5*) osatzen dute; La Roblakoak (1902) trenbide eta geltokia mantentzen ditu, beste egitura batzuen artean; Luchana Miningarena (1887), ezkutuan dirau, arestian esandako miaketan aditua, eta Orconerakoak (1877) Trapagaran biderako tunelak. Gainera, Burtzeñako



**Irudi 5.** Franco-Belgako trenbideak utzitako bidean eginiko bidegorria.

<sup>5</sup> Nahiz eta *Bilbao Ría 2000* (d.g.) proiektuak Desertukoa bota nahi izan zuen Urban-Galindoko birbalorazioan.

Alzola zubia (1886), nahiz eta kaxoi bat kendua eta bestea arriskuan izan den<sup>6</sup>, IOHLEEren interbentzioari esker burdinbideak Barakaldon utzitako monumenturik agerikoena litzateke, zoritxarrez bere kokapen deserosoagatik ia bakarrik tren barrutik ikusi daitekeena.

Edonola, Barakaldoko paisaia hobeki integratuta dagoen industriaren aztarnak oro har langileen kooperatibek burututako etxe merkeak dira dudarik gabe (*Irudi 6*), bere momentuan baino askoz gutxiago izan arren, edonon baitaude euren etxebizitzafuntzioa diraelako: AHVko etxeak (Done Bikendi), *La Familiar* (Beurko), *La Tribu Moderna* eta *La Providencia* (Bagatza), *La Esperanza* eta *El Porvenir* (Arteagabeitia), *La Felicidad* (Zaballa) eta *El Hogar Futuro* (Andikollano).



**Irudi 6.** *El Hogar Futuro*ko langile etxe-multzotik geratzen direnak (Andikollano), Barakaldoko paisaia mimetizatuak (Lutxanatik hartua).

Bestalde, hasieratik proiektzio industrialeko auzoa izandako Lutxana dago, itsasadarreko portu arean kokapen estrategikoa dela eta Orconera, La Robla, Luchana Mining, Motos Lube, Sefanitro eta bestelakoak barne hartu, eta gaur egun Barakaldoko foku industrialak izaten jarraitzen duena —*Oxinorte* etab. egonez—; hala, auzoaren kultura materialak ondare industrialaren kontzentrazio nabaria eragin du. Gainera, aurreko atalean

---

<sup>6</sup> Kontsultatu 10. orrialdea.

komentatutako Orconeraren pabiloietan egingo zen Euskadiko Teknika Museoa bertan kokatuko litzateke, nahiz eta inoiz ez den aurrera eraman, geroago adituko den sasi-deribatu baten mesedetan; egian, luzaro auzoko aferentzat erabiliak izan direlarik, jaietako barrakak edota auzo-afariak jasotzeko.



**Irudi 7.** Ilgner eraikina Urban-Galindon, gaur Ezkerraldeko Cedemi/ BICa. Oso ongi kontserbatua.

Bestetik, AHVtik Ilgner eraikina (*Irudi 7*), AHVren energia-hornitzaile ohia, egun BIC/*Cedemi* bezala mantendu dena, barnean Ezkerraldeko industrian nolabait tipiko den dekorazio zeramikoa eta Ilgner bihurgailu bat kontserbatzen dituen, eta aurretik aipatutako bulegoak geratzen dira. Aitzitik, Bizkaiko Labe Garaiek paisaian utzitakoaren agerikoena hutsuneak dira, Ansion —parte batean BECa ezarria— eta periferian, begetazio basatia hazi duena luzaro. Izan ere, itsasadarrean Orconera, Sefanitro eta Franco-Belgaren kargaleku bana diraute (*Irudi 8, 9 eta 10*); azken hori *Bilbao Ría 2000* proiektuak erakusketarako egokitua, beste biak suntsipen maila oso altua duten heinean —Orconerako jatorrizko bostetik bat egoera nahiko onean eta beste bi suntsipen osoan (*Irudi 11*) geratu direla—.



**Irudi 8, 9, 10 eta 11.** Itsasadarreko kargalekuak (eskerretik hasita ordenan Franco-Belga, Sefanitro eta Orconerakoak). Paralelismo agerikoa zaharberritu eta egokitutako horren (8) eta abandonatutako horien artean (9 eta 10). Orconera kargaleku suntsitu baten hondarrak (11).



Alabaina, Barakaldoko kasuan “Ondare Arkeologiko” ofizialki aitortutakoak dorretxe, ermita, errota eta burdinolak dira, ikusitako garai industrialeko aztarnak “arkeologiko” den horretatik kanpo geratu direlarik. Edonola, “Ondare Industrial eraiki” gisa Ercros pabiloi —sailkatua—, udal hiltegi eta merkatua —bitarteko babesdun—, eta Alzola zubi zein Done Bikendiko AHVko etxe merkeak<sup>7</sup> —babes berezia— adituak daude (Kultura Ondarearen Zentroa, 2023). Bestalde, nahiz eta 2016an itsasadarrean geratzen diren kargalekuak “multzo monumental” izendatzeko prozesua ireki zen, jurisdikzio kontuek Estatuko eskuetan jarri zuten afera, aurten Orconerako 5. kargalekua —gehi 4. zein 3.aen hondarrak— interes kultureko ondare izendatu dituztelarik. IOHLEEek salatu egin du Sefanitrokoaren ageriko baztertzea Estatuaren eskutik; nahiz eta, paraleloki, Eusko Jaurlaritzako aurrekontutik abiatutako proiektuak konpromisoa hartu duen kargalekuak zaindu eta birgaitzeko (IOHLEE, 2023).

Bestalde, Udal mailako babesaz arduratutako eta Barakaldon indarrean dagoen Herri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) 2000. urtekoa da, zaharkitua, bertan ageri diren argazki asko aurretikoak izan daitezkeelarik. Hala, bi hamarkada baino gehiago pasata eta Barakaldo hain aldatua egonik, plangintzaren berrikusketa sakon baten premia dago, batez ere inkongruentzia deigarri batzuen eskutik: horien artean Lutxanako txalet ingelesen afera nabarmenena izanik, eskandalu itzela izan zena. Nahiz eta Udalaren indiferentziak egoera okerrean kontserbatzea eragin izan, mende hasieretan XIX-XX. mende-aldaketan eginiko Orconerako lorategi-hiriko bost txaletak oraindik zirauten —gainontzeko eremua Udalak parke egina jada—, Lutxanako auzokoek, bere potentzialtasuna ikusia, jada 20 urte inguru hauek ekipamendu soziokulturaltzat berreskuratzea aldarrikatzen zeramatzatelarik. Hala ere, “ejemplar del urbanismo entendido como corrupción y negocio rápido”, ustekabeen bota zituzten 2007an, azkena 2010an (Ezagutu Barakaldo, 2021), auzokoen erresistentzia fisikoaren gainetik pasata. Berebiziko afera izan zen, horrez gain, HAPOan babes estrukturala zutelako, eta are gehiago Ondare Industrialaren Behin-behineko Inbentarioan esplizituki ageri zirelako (HAPO, 2000).

Bestalde, Ezagutu Barakaldok (2022) salatutakoa “la protección municipal no garantiza el mantenimiento del edificio en su integridad” kasu askotan agerikoa izan da

---

<sup>7</sup> Barakaldoko langile-etxeen erakuste zabalaren baitan Erkidegoak babestu izandako bakarrak izatea arretea deitzen badu ere.

Barakaldon: Lutxanako geltokiak 2007 eta 2010an sufritutako atentatu edota Orconera kargalekuak jasotako sute jarraituak. Eta, nahiz eta IOHLEEk hainbeste esfortzu bideratu izan hauek ondare izendatzeko, jabeek, zaharberritzea ezik, gutxienez mantenu-lanak burutzera behartua egongo zirelakoan, egoera berdinarekin luzapena eman da egian, bakarrik eremurako sarrera mugatuz. Izan ere, “ondare” bezala aitortu eta “babestea” ez dira lan duin baten pareko, gutxienez praktikan Ercos, Alzola zubi, Orconera kargaleku eta bestelakoen abandonu-egoerek azaleratzen duten bezala. Are gehiago, abandonua desengainu eta interes-falta patologikoari atxikitua dago, Sefanitroren eremuaren abandonu —luzaro etxebizitza-konplexuak egiteko pentsatua, baina auzokoei korrika egin edo txakurra ateratzeko parke gisa erabilia, nahiz eta printzipioz hesitua egon— edota AHVren garabien kentzean ikusia —zeinen berri aurkitzeko GeoEuskadiko bisorera (*Irudi 12*) jo behar izan den lan honetan, garaian berri izan ez baitziren—.



**Irudi 12.** Sefanitro inguruko 2008ko ortofotoa (GeoEuskadi), non fabrikaren abandonua eta azken garabia ageriko baitiren (hurrengo urterako jada kendutakoa albisteei horren berri eman gabe).

Edonola, Industria Ondarearen inguruan sonatuak izan diren problematika desberdinak egon dira. 2016an eskandalua egon zen Burtzeñako PROFUSAREN koke-bateria —Euskadiko azkena— desegiten hasi zenean, soilik IOHLEEren ekiteak gelditu zuelarik (IOHLEE, 2016), baina nahiz eta gerora Batzar Nagusiek (2016) horrentzat babesa eskatu bazuten ere, egun egoera izoztua dirudi. Bestalde, Barakaldo zentroko Bide Onera kooperatibaren auzia legoke, industria gizartetik mende hasieran funtzionatzen

iraunikoa, baina 2019an bota egin dena soilik fatxada mantenduz (*Irudi 13*), Udalaren eskakizunei jarraituz —nahiz eta HAPOan berez babes estrukturala izan—. Orain pisuak dira, behealdean Bide Onerako bazkideei lan emateko kosmetika denda bat mantendu bada ere.



**Irudi 13.** Bide Onera kooperatiba gaur, soilik fatxada mantendua.

Izan ere, iragan industrialeko bestelako testiguak badiraute ere, Burtzeñako *Gruber Hermanosen* instalazioak, urtegiak —funtzionatzen dirautenak— edota Orconerako trenaren tunelak kasu, ordea, gehienak —*Cooperativa de la Cruz*, pasabide-balkoidun etxe merkeak etab.— galdu izan dira zerbitzu-hirirako trantsizioan.

### **3.3. Barakaldoko inizatibak ondarea ezagutarazteko**

Behin egoerari hurbildua, gaur egun Barakaldo hiri gisa ezagutezin dagoela esateko da, gutxienez bere aldaketa bortitzen testigu izan diren horientzat. Barakaldoren izaera markatzen zuen hori —Desertu, guztiz eraberritua; Ansio, hutsune eta BECaren arteko hibridoa; Lutxana, ia galdua— desagertua egotean, nolabait memoria historiko eta emozionalaren kontra gertatutako erasotzat ikusi ahal da. Hala, garai-aldaketak utzitako memoria-hutsune horri aurre egiteko, Barakaldok ekimen desberdinak burutu ditu historia industrial eta dirauen ondarea ezagutarazteko.

Udalak bultzatutako publikazio jarraituak badaude: *K-Barakaldo* ondare kulturalari buruzko aldizkaria, *Arbela hezkuntza aldizkaria* eta *Barakaldo Digital* egunkaria, zabalagoa eta jarraituagoa. Edonola, lanean zehar behin eta berriro ageritako eta benetan Barakaldon pisua duena, Eusko Jaurlaritza eta Udalaren lankidetzatik sortutako **Ezagutu Barakaldo (EB)** proiektua da. EB hiru ardatzetan antolatzen da: esandako *K-Barakaldoz* gain, El Regatoko Barakaldoko Historia eta Ingurumena Interpretatzeko Zentroa (*Irudi 14*), ondarea erakutsi eta haren berri emateko ekipamendua, eta Eskola Programa, Barakaldoko historia ikasgelatik at irakasteko adarra —ingurune-historikodun interes-lekuetarako irteerak gauzatzen dituen—. Horrez gain, EBk web-orri orokor eta zabal samar bat dauka —<https://ezagutubarakaldo.net/>—, non Barakaldoren historiari buruzko aferak —artikulu, artxibo, berri, argazki— biltzen baitiren.




**Irudi 14.** El Regatoko Barakaldoko Historia eta Ingurumena Interpretatzeko Zentroa (CHIMA Luis Choya Almaraz Zentroa).

Proiektuaren baitan, aurretik aipatutako Mixel Olabuenagaren ekarpenak nabarmentzeko dira, dibulgazioari ekin diona Barakaldoren memoriaren alde, berak aitortu duen bezala “porque únicamente quien se siente profundamente enamorado de alguna realidad es capaz de transmitir y acompañar a otros en la tarea educativa”. Gainera, Olabuenagak EBko etorkizunerako plangintzan gehitzeko iradokizunak aurkezten ditu, hezkuntza zentroetan Barakaldoren inguruko mapa, bibliografia, bideo, argazkiak etab. egotea adibidez, beti EBren potentzialtasuna gailentzen duelarik, *input* handiagoarekin gauzatutako udalerriko ikerketa pertsonalak ezagutzarako premia eta interesa indartuko duelakoan (Olabuenaga, 2021).



Barakaldoko Herri Lan eta Meatzaritza Teknikako Ingeniaritza eskolak Lurrin lokomotore bat erakusketarako bazuen ere, EHUk Bilbora mugitu zuen eskola 2012-13 ikasturterako (El Correo, 2014), gutxinaka Barakaldoren memoria alienatuz joandako prozesua. Halere, Lutxanan *Orconera-Lutxana Bilduma* dago industria ondare higigarriaren gordailu gisa, Zorrotzaurreko Konsoni Lantegiaren oinordekoa. Teorikoki materialen “zaintzarako” pentsatua eta oraindik bere momentuan proposatu zen Teknika Museotik urrun badago ere, aldez aurretiko hitzorduarekin bisitak eskaintzen ditu, aurretik galdutakoa konpentsatuz nolabaiteko erakusketa funtzioa izanik (Kultura Ondarearen Zentroa, 2022b).

Barakaldoko Udalak erakusketarako elementu eta noizbehinkako informazio panelak (*Irudi 15 eta 16*) ere bultzatzen ditu ondarea ezagutarazteko. Iraunkorrek direnak badaude, Franco-Belgaren kargalekukoak edota Lube motorren gainekoa Lutxanan. Halere, momentu honetan interes-puntu jakinetan dagoen *Burdinaren arrastoari segika* deituriko proiektua adibide da, Barakaldon barrena burdinaren *boomarekin* loturiko aferei —hiri industrialeko hirigintza zein itsasadar aldeari— jarraituz informazio-panelen eskutik ibilbide kultural bat osatzen duena. *Ekonomia eta Industria garapen ibilbidea* egin izan da ere, Gasolinotik itsasadarreko paseoa zeharkatuz Gurutzetako Munoa jauregira arte (Visit Barakaldo, d.g.) eta urtero *Open House Bilbao* arkitekturen inguruko proiektu nahiko irekia badago ere, nahiz eta oraindik ondare monumentalean zentratu baiten bakarrik. Gainera, iaz Udalak industria ondarea eta itsasadarrari balioa emateko Gasolinoz eginiko ibilbideak antolatu zituen.



**Irudi 15 eta 16.** Dolores Ibaruri paseoan dagoen *Burdinaren arrastoari segika* ibilbide-proiektuaren informazio-panel bat. || Lutxanako *Motocicletas Lubeko* erakusketarako motorra.

Daudenez gain, etorkizunerako plan anitzak ditu Udal zein Eusko Jaurlaritzak, adibidez Lutxanako tren geltokian La Roblako linea eta instalazioei buruzko interpretapen zentro batena (El Correo, 2022). Udalak Europar Diru-laguntzen deialdirako ere aurkeztu egin izan ditu proiektu desberdinak, Barakaldo “Euskadiko turismo industrialaren atean” jartzeko. Izan ere, hauek ondare industrial material —itsasadarreko ingurua berrituz eta pantaila interaktiboak ezarriz— zein immaterialari ikusgarritasuna eman nahian. Edonola, “immaterial” bezala ulertutako hori soilik gaur egun industria aztarnak guztiz desagertuta dauden eremuen “interpretapen atemporalari” men egiten diola esateko da, AIak maneiatzen dituen kontzeptuez urrunduz; kasurik agerikoena Ansio izanez, non egun BECa dagoen eta zeinean antzinako AHVko laminazio trenaren berri emateko errealitate birtuala erabiltzea espero baiten (Enbarakaldo.com, 2021),

Bestalde, Barakaldo industriaren memoriari men egiteko arte obrez josita dago: udaletxeko eszenatokiko murala (*Irudi 17*) edota 2001tik aurrera (Pereda, d.g.) hirian gehituz joandako burdinazko eskultura monumentalak (*Irudi 18, 19 eta 20*). Industriaren balio emozionala da kreaizio artistiko eta memoriaren iraute hori markatzen duena Barakaldon, paisaia berregokitu egiten duena irudi, argazki eta eskulturen eskutik, denborarekin dokumentu historiko bihurtuko direnak (Juaristi, 2012).



**Irudi 17.** Udalak 2018an Barakaldoko historia sozialaren aferak erakustera bideratutako murala. Atzean AHVko labe garaia eta Orconera kargalekuaren errepresentazioak.



**Irudi 18, 19 eta 20.** Barakaldon zehar aurkitu daitezkeen industriari erreferentzia egiten dioten arte obrak: ezker aldean burdinazko *Las Chimeneas* (2002) eta eskuinaldean *Monumento a la industria* (2002); behean aurrekoaren xehetasuna, Orconera kargalekua erakusten duen erliebea.

Noizean behin egiten diren argazki erakusketak badaude ere, herriak berak ere parte hartzen du memoriaren mantenu eta ondarea ezagutarazteko joera honetan; egian, Barakaldoko elkargune zein taberna asko industria garaiko argazkiez josita daude, Salesianos ikastetxe edota Beurko Berria tabernak Barakaldo industrialaren argazki historikoak era irekian erakustaldian izanik.

## 4. AHOZKOTASUNA: ARKEOLOGIA INDUSTRIALAREN PREMIA

Baina, arrakastatsu izan al dira aurreko atalean ikusitako esfortzu guzti horiek? Aldarrikapen bat gauzatzeko momentua dirudi hau, ahozko testigantzen eskutik.

### 4.1. Ahozkotasanaren eskutiko Arkeologia Komunitarioaren premia?

Industria Ondarearen Plan Nazionalak jada aditu egin du ondare immateriala esanguratsu gisa, izanez “entidades de memoria de industria aquellos testimonios, instituciones o colecciones [...] parte integral de la memoria histórica asociada a un sistema de trabajo, disciplina científica o actividad investigadora relacionada con la Cultura del Trabajo” (Ministerio de Cultura, Educación y Deporte, 2015: 13). AIak datu historikoak artxibo, argazki, lan eta interbentzioetan aurki ditzake; ordea, Planak aditu bezala, gizatiarrago diren haratagoko kontuak —sentimendu, bizimodu, pertzepzioak— pertsonengan aurki daitezke bakarrik, garai hartan —eta honetan— protagonistak.

Ahozko iturriek gizaki-makina erlaziotik haratago jotzeko proiektzioa dute, bizitzaren istorioek gizarte industrialeko inguru osoko irudia osatzeko balio dutelarik, Casadok (2009b) jaso bezala AIak behar duena “trabajar en un nivel local comprensible, concreto, aferrado a la cotidianidad, para tratar de analizar los temas más amplios de la historia: ideas, valores” izanik. Hala, ahozkotasanak errealitate industrial eta postindustrialen testigantzak biltzeko aukera ematen du, bizilagunek euren buruak historiarekin bat egiten dutela sentitu eta harekin identifikatzeko, memoria historikoaren aldarrikatzaile eta aktore bihurtuz.

Ahozkotasan hau, noski, beste testigantza zein iturriekin alderatzea funtsezko agertzen da: zer eta zer ez den esaten, nola, nabarmentzen dena... memoria kolektiboa bizirik baitago, pertzepzio desberdin eta freskoen xehetasunek ikerketarako puntu gakoak aditzera lagun dezaketelako ere bai. Diziplinan Industria Ondarearen gaineko ikuspegia aldatuz badoa ere, praktikak nolabait material den horri mugatuta jarraitzen du oro har, gehienetan ahozko ondarea ahaztuz. Industriak gizartean utzitako eragin horrek pisua du, eta hau benetan erakusteko testigantzarik hoberena jendea bera da, memoriaren bilketa oso erabilgarri izan daitekeelarik dibulgazioan (Alberdi eta Sarasua, 2002) baita kudeaketan ere.

Azken hori, parte-hartze publikoa arkeologian, alegia, ez da egun harritzeko ideia, dibulgazioaren jasotzaile soil izatetik parte-hartzaile bihurtzeko bidea aditua baitago.

Izan ere, boluntadea ikusienez komunitate askoren artean, Arkeologia Publikoak eta, gerora, Komunitarioak beregain hartu izan dituzte deia horiek. Azken hori interesgarrien zaigu hemen, arkeologo eta ez-profesionalen —hau da, komunitatea, auzoko kezkatuak— arteko elkarrekintza sustatzen duena, ondarearen kontserbazio, erabilera eta bestelakotan, proiektuen fase desberdinetan zehar. Alabaina, honen bidean ikerketa zein administrazio muga nabariak diraute oraindik, baita parte-hartze horren kontsolidapena haragitzen duten proiektu sendoen falta (Cardona, 2016).

#### **4.2. Ahozkotasuna iturri zein kudeaketa-tresna gisa: Barakaldoko ahotsak**

Aurretik ikusitako Barakaldoko Ondare Industrialaren, baita esandako ahozkotasun zein Arkeologia Komunitarioaren egoeraren aurrean, auzokoen pertzepzioen lagin gisa metodologian aipatutako ahozko testigantza horiei<sup>8</sup> helduko zaie jarraian. Esateko da gehienek Barakaldo industrialia ezagutu dutela, gorengo edo azkenengo momentuetan, nahiz eta haietatik bat ere ez zuen pertsonalki industriari lan egin; baina, M<sup>a</sup> Rosario Larak (2023-03-23) seinatu bezala, “entonces trabajaba todo el mundo en la industria”, inguruko panorama oso antzeko zen —Babcok & Wilcox, Franco-Belga, Orconera, Sefanitro eta gehienbat AHVn lan eginez—<sup>9</sup>.

Hala nabaritu da iragan industrialia identitate markatzailatzat ulertzen dela, bizitza zein historia aldatzaile, Barakaldo gaur dena bermatu duelako, nahiz eta bizitza propioan ez beti ezinbesteko izan; batzuk (Ruíz, 2023-03-23) gaur jada garrantzitsu ez dela aditu badute ere —identitate hori markatzen zuena jada ez dagoelako, ez industria ez langileria—. Industriarekiko nostalgia agerikoa da, alegia, desindustrializazioaren gaineko pertzepzioa banatua egonik: pesimista, “desastre total” (Montalbán, 2023-04-06), langileriarako traumatikoa, industria eta jende mugimendua faltan botaz eta aurrekoa nahiagoz, eta erregenerazioaren eskutiko etxebizitza- eta zerbitzu-hiriaren soiltasunerako trantsizioa azpimarratu duena; eta, bestetik, positiboa, orain hiria berde, garbi eta politagoa dela deritzona. Testigantzen hasiera-puntu hau ikusia, aurreko atalean aditutako ondarearen gaurko egoeraren aurrean bizilagunen jarrera aditzeko egin den kontsultaren ondorioak ikusiko dira orain.

---

<sup>8</sup> Gehienak Barakaldon jaioak dira —kenduta Nikaragua eta Argentinako bi emakume, eta Extremadura eta Bilboko bi gizon, azken hauek Barakaldon bizi dutelarik bizitzaren parte handia—.

<sup>9</sup> Informante bakoitzaren kontu zehatzak ikusteko, eranskinak kontsultatu.

Aferarekiko interes falta handia baino, proiektzio kulturalak proposatu dituen baliabideak haien arreta deitzera ailegatu ez direla esan daiteke, gehienek Barakaldoko iragan industrialara ezagutzeko erakusketa edo proiektuetan ez baitira egon. Izan ere, egondakoek Lutxanako Orconera pabiloietako erakusketa, Gallartako Meatzaritza Museoa eta El Regatoko zentroa, noizean behineko argazki erakusketekin batera, nabarmendu dituzte.

Baina, nola ikusten dute ondarea? Gehienek ez dute uste industria-aztarnarik geratzen denik Barakaldon, adibideak emateko batailatu dutelarik. Orconerako pabiloien eta kargalekuen<sup>10</sup> existentziaren berri izatea tipikoena bada ere, askotan jendea horien existentziaz harritu izan da.<sup>11</sup> Nabarmentzeko dira, halere, arreta deitzen duten adibide “okerrak”: baserri eta burdinolen aipua (Ramales, 2023-03-23), Barakaldoko iragan hurbileko protagonistak ez direnak, eta garabiena (Granados, 2023-04-06), aurretik komentatu bezala kenduak izan zirenak isiltasun osoz.<sup>12</sup> Edonola, harritzeko izan da burdinbide edota etxe merkeei eginiko aipamen eza, oro har baitirudi paisaia barrena dauden industria-aztarnak ikusezin bilakatu direla Barakaldo berrian, M<sup>a</sup> Rosario Lararen (2023-03-23) testigantza naturalak ederki jasoa:

¿Me puedes creer una cosa? Iba de casa a la imprenta y de vuelta a casa. No he conocido Barakaldo. Lo estoy conociendo ahora. Y ahora estoy asustada. Ayer bajé a la Ría y ¿aquello qué era? Había hierba [...] y ahora estoy maravillada de cómo está. Ni siquiera he visto los cargaderos que me has dicho.

Behin ondarearen existentzia frogatua, honen egoerari ekitean, bi bide ageri direla dirudi: gehienek, babestua dagoela aldarrikatzen dute, nahiz eta “beranduegi” egin den (Sebastián, 2023-04-06); aitzitik, kontrari ageritakoek jarrera sumindua adierazi dute, esanez “si quedan, están muertos del asco” (Ruiz, 2023-03-23). Aditzeko da hauek<sup>13</sup> **babes juridikoa eta abandonu egoera bateraezinak** direla ulertzen dute; hau da, ez

---

<sup>10</sup> Nahiz eta gehio ageri —Ercros pabiloia (Montalbán, 2023-04-06), urtegiak (Granados, 2023-04-06)— . Gainera hauen ez-ohiko funtzioen berri ere eman da: Orconera pabiloiei buruz “hemos comido ahí por el centenario del Sporting” (Montalbán, 2023-04-06), *Sporting de Lutxana* futbol taldeari erreferentzia eginez.

<sup>11</sup> Gehienbat Ruiz, Andrades eta Larak (2023-03-23).

<sup>12</sup> Garabien inguruan ikertzeko atea elkarrizketa honek ireki zuela, alegia.

<sup>13</sup> Oro har, Ruiz, Andrades (2023-03-23) eta Montalbán (2023-04-06).

dute imajinatzen nola babestua dagoen zerbait erortzeaz egon daitekeen. Hau esanda, babesaren alde agertzea joera orokorra da bizilagunen artean, Barakaldoko historia den heinean diru publikoa kontserbaziora bideratzea ongi ikusiz. Era berean, kontserbazio kontuetan ez dute elementuen gaineko lehentasunik aditzen, langile-etxeenaz gain (Ruiz eta Lara, 2023-03-23; Granados, 2023-04-06); gainera, bizirik diraun Gasolinoaren arrisku jarraitua<sup>14</sup> salatu da (Ruiz, 2023-03-23), egun kontrobertsia handia Barakaldoko auzoetan.

Hori bai, ondarea kudeatzeko eran bizilagunek bat etorri dira, birgaitze eta berrerabilpena idealtzat aitortuz, funtzio publikodun ondarearen eskaera argia dirudielarik. Gainera, barakaldarrek ondare gaineko iradokizunak botatzeko ahalmen sutua ere dutela adierazi dute, langile-etxeetan informazio-plakak jartzearena “mis padres viven ahí. Si no fuera por eso no lo sabría... estaría bien una placa en el grupo Primero de mayo” (Sebastián, 2023-04-06), adibidez. Era berean, fatxadismoarekiko desengainua agerikoa da “a ver, lo de la Bide Onera me parece una pantochada” (Lara, 2023/03/23) edo “yo creo que lo de la Bide Onera no sirve para nada [...] es como ver una fotografía” (Granados, 2023-04-06).

Azkenik, industria ondarearen gaineko kudeaketa-erabakietan parte-hartzeko nahia ere ageriko izan da oro har: “que pidan la opinión en vez de hacerlo así ‘porque yo quiero hacerlo así’” (Montalbán, 2023-04-06). Nahiz eta industriari buruz adituak ez izan, bizilagunon iritzia eta inplikazioa ondarearen gaineko erabakietan funtsezko direla azpimarratu dute. Hala ere, sumatu da adinak eragindako aldentzea ere (Ruiz eta Lara, 2023/03/23) edota instituzioekiko nahigabea —“alferrikakoa” dela uste baita (Santos, 2023/03/23; Granados, 2023-04-06) Lutxanako esperientziak erakutsia—. Azken hori, Roberto Montalbánek (2023-04-06) Orconerako etxeak kontserbatzeko mobilizazio handiei buruz hitz egitean islatu bezala:

Yo estuve cultivando unas huertas en el jardín [Orconera txalet batena], porque me dejaba el dueño que era amigo mío. Se presentaron sin avisar ni nada, y “esto se tira y se tira”. Se había reivindicado para el pueblo... y nada. Yo estuve de presidente en la Casa Social en los 70, y el alcalde había venido ya a hablar de usar las casas sin columnas como un pabellón grande para un gimnasio o yo qué sé. Palabras que se las llevó el viento.

---

<sup>14</sup> Urtero Gasolina krisian dagoela eta itxiko dela aitortzen da albisteetan.

Hemen jasotakoa elkarrizketa laburrek islatutako eszena da, Barakaldoko ahotsen lagina. Hala, aditu izan da ondare eraikitik haratagoko kontuei —paisaia, etorkinen kultura-etxeen tradizioak, memoria— eginiko aipamen eza, baita fatxadismoarekiko desafekzio sutsua. Era berean, nabaria izan da iragan industrialeko ezagutza edo interes handiagoa dutenak Lutxanako horiek direla —Sebastián, Granados eta Montalbán—, seguru aski auzoko testuinguru berak sustatutako joera. Edonola ere, ahozkotasanak industria eta desindustrializazioari buruzko giza-pertzepzioei heltzea ahalbidetu digu hemen, gaurko ondare-erronkei aurre egiteko sostengu edo aktore garrantzitsu izan daitekeela frogatu aldera. Ahots hauek eskaera sozial berriak haragitzen dituzte, ondare kontuetan herritarren nahien presentzia aldarrikatzen dutelarik, euren parte-hartzea ez soilik aberatsa baizik eta “sasi-derrigorrezkotzat” hartuz. Izan ere, lan honek seinlatu nahi du ez dela nahiko haien parte-hartzea sustatzearekin, baizik eta jendeak —herritar gisa— ondarearen kudeaketa-afereetan jarduteko ardura eta erantzukizuna ere barneratu behar duela horren truke.

## 5. ONDORIOAK

Lana irekitzeko Olabuenagaren aldarrikapen hura erabili izana ondarea kudeatzeko eran aldaketa eman behar dela erakusteko nahiarekin bideratu da, batez ere industriarekin zerikusi duen ororekin, suntsipen zein abandonu-egoera eta neurrigabeko musealizazio hieratikoaren artean oreka bilatu behar delarik (Juaristi, 2012), Industria Ondarearen espektroak maiz erakutsitako dikotomia zurruna.

Lanean zehar Arkeologia eta Ondare Industrialaren garapen teoriko-instituzional eta problematikak ikusi dira, batez ere gero eta intereseko interbentzio eta lan gehiago ematen ari direla nabaritzen, bide batez jada legeak onartu, babestu eta erregularizatu egotea lortu delako —IOHLEEren esfortzuen eskutik hein handi batean, esan bezala—. Barakaldoko ereduari ekinez, gainera, marko teoriko-juridiko horretatik haratago mugitu gara, praktikan ematen dena ikusi aldera. Hala, batez ere azken urteotan, Barakaldoko Udalaren ondare industrialaren aztarnekiko konpromiso —oso lotua turismo-irteeraren pretentsioekin— handiagoa ikusi da, ezagutarazteko organo —gako izandako *Ezagutu Barakaldo* kasu—, programa eta babes zein zaharberitze proiektuen eskutik, aurretik hanka-sartze handiak egon badira ere. Edonola, industriaren ikerketa eta kontserbazioaren egoeraren diagnostiko egiteaz gain, lan honekin Barakaldoren



potenzialtasunaren aldarrikapena egitea bilatu da ere, ikusi bezala egindakoa oraindik jende aurrean nahiko ez dirudienez gero.

Lanean zehar industria “un patrimonio insustituible que está anclado en el corazón de su propia identidad colectiva” (Ibañez *et al.*, 1988: 162) dela aditu da, Barakaldoren kasuan guztiz agerikoa. Hala ere, badirudi hirian hain ederki sartua dagoela, non ia ikusezin bilakatu baiten. Barakaldok jada ez du paisaia industrialarik, baizik eta **postindustrial**a, izate berri bat bilakatu baita iragan industrial hori atzean utziz eta entitate diakroniko berri bat bihurtuz. Denboran izoztua baino, momentu honetan gertatzen ari da Barakaldo postindustrialaren historia, aurreko garai baten hondarrak hiriko mentalitatean presente egoteko zer egin ez dakiela dirudiena; aztarnak kontserbatu, integratu edota artearen eskutik imajinario publikoan sartuak badaude ere, arreta handirik jasotzen ez dutelako. Horretarako, baliteke esandako Olabuenagaren esaldiarekin pista bat utzi izana: jendeari, eta hauen sentipen, memoria eta nahiei hurbiltzea da gakoa, ondarearen birbalorazioaren bila.

Hori izan da, alegia, lan honen beste ardatza: ahozkoitasun zein Arkeologia Komunitarioaren premia aldarrikatzea. Lea eta Thomasen esanetan (2014, apud Cardona, 2016) proiektu arkeologikoen berpizte eta hobetzea lor daiteke, ondare historiko-arkeologiko-kulturalari haratagoko zentzu sozial baten adierazpenarekin batera, komunitatearen parte-hartzeaz. Horretarako, diote, ondareari heldu eta kudeatzeko aukera eman behar zaio komunitateari, erabakitzeko aukera emanez, demanda sozialei erantzunez eta, beraz, Arkeologia eta gizartearen arteko zubiak eraikiz. Ahozko testigantzen eskutik nahi hori aditu da, baita euren eskaerak kontuan ez izanagatik frustrazio sutsua ere; era berean, emozio zein informazio berrien erdibidean emandako elkarrekintza izan dira elkarriketak. Gainera, jendeari hitz egiteak galdera eta ildo berriak bururatzea eragin izan du kasu honetan, albiste edo dokumentuek —gutxienez eskura daudenek— aintzat ez hartutakoak. Ahozko iturrien apologia itsua baino, desaprobetxatzea pena izugarria izango litzatekeela aldarrikatzen da hemen, batez ere industria garaiko dokumentu-historiko bizia diren horienak; izan ere, ondarea arrisku jarraituan dago, orain kontzientzia hartzeko garaia dela azpimarraraziz: “denbora gure aurka ari da borrokan” (Alberdi eta Sarasua, 2002: 262), testigantza zuzen horien galera arinagoaren aurrean akzioa esnatzeko beharra aitortzeko izanez.

Zoragarri eta zeharo aberats den Barakaldoko Ondarea AIaren arreta zuzenaren pean dagoen, eta diziplinaren propio diren teknika eta interesei erantzungo dion, lan sakon baten esperoan dagoela esateko da. Berdinki, ondarearen gaineko diagnostikoa burutua, horren kudeaketa arrakastatsu —eta komunitatearekin benetan integratzailea— bat lortzeko bidean, lan honetarako jaso diren testigantzei erreparatu izan zaie, hauen ambizioa aditzea ahalbidetu duena. Hala, hiriaren etorkizunera begira, ondarearen eta gizartearen ongizate eta asetzea lortzearen, Barakaldoko ahotsen oihartzuna entzuteko momentua dela badirudi, Ezagutu Barakaldok (2021) jaso bezala:

Nos han robado buena parte de nuestra memoria, pero nos queda el futuro. Sin una organización-concienciación vecinal, sin movilización y lucha no conseguiremos que los responsables políticos respondan a los intereses de la mayoría. Sólo entonces podremos diseñar Barakaldo pensando en la calidad de vida de sus habitantes.

## 6. BIBLIOGRAFIA

- 7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondarrari Buruzkoa. (EHAA, 157. zk., 1990ko abuztuak 6). <https://n9.cl/ds07y> [2023/03/11an ikusia].
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa. (EHAA, 112. zk., 2014ko ekainak 16). <https://n9.cl/jt1uw> [2023/04/28an ikusia].
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena. (EHAA, 93. zk., 2019ko maiatzak 20). <https://n9.cl/oatdl8> [2023/03/11an ikusia].
- Alberdi, I. eta Sarasua, A. (2002). Ahozkotasanaren garrantzia Industria Ondarearen berreskurapenean. In *Industria Ondarearen Euskal Biltzarra. Industria ondarearen kudeaketa Europan XXI. mendean* (259-262 orr.). Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarte.
- Cano Sanchíz, J. M. (2021). Arqueólogos en la fábrica. Breve recorrido por la historiografía de la Arqueología Industrial. *SPAL - Revista De Prehistoria Y Arqueología*, 16: 53–67. <https://doi.org/10.12795/spal.2007.i16.04>
- Cárcamo Martínez, J. (1995). El museo, tradición técnica y arqueología industrial. In *Euskal Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean* (447-460 orr.). Eusko Ikaskuntza.
- Cardona Gómez, G. (2016). Implicación social y patrimonio: Un cruce de caminos entre arqueología pública, arqueología comunitaria y didáctica de la arqueología. In M. Díaz-Andreu, A. Pastor eta A. Ruiz (koord.): *Arqueología y comunidad: el valor social del patrimonio arqueológico en el siglo XXI* (13-33 orr.). JAS Arqueología.
- Casado Galván, I. (2009a). Introducción a la arqueología industrial: origen de la disciplina y metodología. *Contribuciones a las Ciencias Sociales* (Malagako Unibertsitatea). [www.eumed.net/rev/cccss/o6/icg12.htm](http://www.eumed.net/rev/cccss/o6/icg12.htm) [2023/03/11an ikusia].
- (2009b). Fuentes escritas, orales e iconográficas de la arqueología industrial. *Contribuciones a las Ciencias Sociales* (Malagako Unibertsitatea). [www.eumed.net/rev/cccss/06/icg11.htm](http://www.eumed.net/rev/cccss/06/icg11.htm) [2023/04/09an ikusia].

- García Izagirre, T. (2009). *Bibliografía sobre Barakaldo = Barakaldo egileen begirada*. Enkarterrietako Museoa eta Bizkaiko Batzar Nagusiak. <https://n9.cl/9s9eh> [2023/04/09an ikusia].
- González, P. A. (2008). Reflexiones en torno a la Arqueología Industrial: El caso del Val de San Lorenzo. *Arte, arqueología e historia*, 15: 267-276.
- Herrerías Moratinos, B. eta Zabala Llanos, M. (2012). El inventario de patrimonio industrial y de la obra pública del País Vasco. In *Euskadiko Industria Ondarea, I Lib.* (97-131 orr.). Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (2000). *Babes-katalogoa*. Barakaldoko Udala. <https://n9.cl/k7mq1> [2023/04/09an ikusia].
- Homobono Martínez. J. I. (2006). El patrimonio industrial y sus activaciones: turismo, museos, ecomuseos y reutilización. *Kobie. Antropología cultural*, 12: 5-34.
- Ibañez Gómez, M., Yaniz Aramendia, S., Zabala Llanos, M. eta Santana Ezquerria, A. (1988). *Arqueología industrial en Bizkaia*. Deustuko Unibertsitatea Argitalpen Zerbitzua.
- Ibañez, M. eta Zabala, M. (2002). Euskal Industria Ondarearen etorkizuna irudikatuz eta eraturaz. Euskal Industria Ondare eta Herrilan Elkartearen hamabi urte. In *Industria Ondarearen Euskal Biltzarra. Industria ondarearen kudeaketa European XXI. mendean* (92-105 orr.). Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarte.
- Juaristi Linacero, J. (2012). El Paisaje Industrial como elemento de patrimonio en el territorio de Bizkaia. In *Euskadiko industria ondarea, I Lib.* (44-68 orr.). Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- Lecanda Esteban, J. A. (2002). El Regatoko meatzaritzarako trena (Barakaldo). *Arkeoikuska01*: 393-398.
- Ministerio de Cultura, Educación y Deporte (2015). *Plan Nacional de Patrimonio Industrial*. Secretaría General Técnica. Subdirección General de Documentación y Publicaciones.

Pereda Angulo, A. (d.g.). 45 años de escultura pública en Barakaldo. *K-Barkaldo*, 3: 106-129. <https://n9.cl/dsvem> [2023/04/10an ikusia].

Sobrino Simal, J. eta Sanz Carlos, M. (2019). Pensando el patrimonio industrial. Los retos del siglo XXI. *Periférica Internacional. Revista Para El análisis De La Cultura Y El Territorio*, 20: 88-99. <https://doi.org/10.25267/Periferica.2019.i20.11>

**- Webgrafia:**

Barakaldo Digital (2021ko ekainak 17). *La alhóndiga ya muestra su rehabilitada imagen a meses de convertirse en un centro de formación dual*. <https://n9.cl/oygvm> [2023/04/10an ikusia].

Bizkaiko Batzar Nagusiak (2016ko ekainak 6). *Batzar Nagusiek Barakaldoko Profusa koke-bateriarako babesa eskatu dabe*. <https://n9.cl/d6wva> [2023/04/10an ikusia].

El Correo (2010ko azaroak 17). *Barakaldo estrenará un paseo con bidegorri sobre el antiguo trazado del tren minero Lutzana-Mining*. <https://n9.cl/selb0> [2023/04/09an ikusia].

— (2014ko urtarrilak 22). *Barakaldo recupera el edificio de Minas para devolverle el uso formativo*. <https://n9.cl/p4dsf> [2023/04/09an ikusia].

— (2022ko ekainak 20). *Proyectan transformar la estación de tren de Lutzana en un espacio turístico*. <https://n9.cl/1maoa> [2023/04/10an ikusia].

Enbarakaldo.com (2021ko urriak 6). *Barakaldo se posiciona como la puerta de entrada al turismo industrial de Euskadi*. <https://n9.cl/yeomhg> [2023/04/10an ikusia].

Ezagutu Barakaldo (2021ko azaroak 26). *El patrimonio histórico de Barakaldo*. <https://n9.cl/pvu1d> [2023/04/10an ikusia].

— (2022ko urtarrilak 24). *Patrimonio ferroviario de Barakaldo*. <https://n9.cl/4xih2> [2023/04/10an ikusia].

GeoEuskadi bisorea. Ortofotografía. <https://n9.cl/quwh3> [2023/04/09an ikusia].

- IOHLEE (2016ko otsailak 22). *Desmantelan la batería de coque de PROFUSA (Barakaldo)*. <https://n9.cl/2m5tz> [2023/04/10an ikusia].
- (2017ko urtarrilak 1). *35 años protegiendo el Patrimonio Industrial: 1982–2017*. <https://n9.cl/bbnsk> [2023/03/04an ikusia].
- (2019a irailak 2). *AVPIOP salvó en 1995 el puente de Alzola y la nave de madera de Ercros en Barakaldo*. <https://n9.cl/x8icm> [2023/04/03an ikusia].
- (2019b ekainak 26). *Por la protección de las ciudades, el patrimonio arquitectónico y la obra pública en Euskadi*. <https://n9.cl/v8vgn> [2023/03/04an ikusia].
- (2023ko martxoak 31). *Barakaldo, una de cal y otra de arena: el cargadero de Orconera protegido; el de Sefanitro sin protección*. <https://n9.cl/ytnxq> [2023/04/15an ikusia].
- Kultura Ondarearen Zentroa (2022a uztailak 14). *Izendapenak*. <https://n9.cl/eihrls> [2023/03/04an ikusia].
- (2022b). *Orconera-Lutxana Bilduma*. <https://n9.cl/zem0r> [2023/04/10an ikusia].
- (2023). *Eraikitako ondarea. Barakaldo*. <https://n9.cl/zhq8xw> [2023/04/15an ikusia].
- Olabuenaga, M. (2021). *Descubrir Barakaldo: una experiencia personal*. Ezagutu Barakaldo. <https://n9.cl/9p4v8> [2023/04/10an ikusia].
- Visit Barakaldo (d.g.). *Ekonomia eta Industria garapen ibilbidea*. Barakaldoko Turismo bulegoa eta Bizkaiko Foru Aldundia. <https://n9.cl/3zrdj> [2023/04/10an ikusia].

## 7. ERANSKINAK

### ERANSKIN 1. Elkarrizketetarako gidoia

1. BLOKEA. Elkarrizketatuaren profila			
Elkarrizketaren data		Lekua	
Argazkia	Izen-abizenak		
	Adina		
	Jaioterria (Barakaldokoa ez izatekotan nongoa, zergatik Barakaldora etorria)		
2. BLOKEA. Informantearen esperientzia, erabiltzaile historiko gisa.			
Bizi al duzu Barakaldo industrialia?			
Zuk edo ingurukoek industrian lan egin zenuten? Non? Zertan?			
Zure bizitzaren funtsezko parte / identitate markatzaile bezala ulertzen duzu Barakaldo industrialia? Zergatik?			
Bizi izan zenuen desindustrializazioa? Nola? Pertzepzioa.			
3. BLOKEA. Informantea ondarea kudeatzeko aktore gisa.			
Inoiz egon al zara Barakaldoko iragan industrialia ezagutzeko museo/proiektu/ erakusketaren baten?			
Uste duzu gerazten dela iragan horren hondarrik? 5 adibide emateko gai izango zinateke?			
Egotekotan, uste duzu babesturik daudela? Ezezkoan, babestuta egotea nahiko zenuke?			
Bideratu beharko litzateke dirua ondare industrialia kontserbatzeko? Hala bada, zerk du lehentasuna? (makina, langile-etxeak ... )			
Zein da ondarea kudeatzeko nahiago duzun formula? Berrerabilpena, fatxada kontserbazioa ...			
Gustatuko litzaizuke ondarearen gaineko erabakietan parte hartzea (udalak proposatutako galdetegi edota adituekin parte-hartuz)? Zergatik?			

## ERANSKIN 2. Lehenengo elkarrizketaren informazio-fitxa<sup>15</sup>

1. BLOKEA. Elkarrizketatuaren profila			
Elkarrizketaren data	2023/03/23	Lekua	Herri zentroa
Argazkia	Izen-abizenak	Ángel Ruiz Sosa	
[Argazki gabe] <sup>16</sup>	Adina	77 urte.	
	Jaioterria (Barakaldokoa ez izatekotan nongoa, zergatik Barakaldora etorria)	Extremaduran jaioa. Lan bila zeuden gurasoek Bilbo ingurura ekarria txikia zenean.	
2. BLOKEA. Informantearen esperientzia, erabiltzaile historiko gisa.			
Bizi al duzu Barakaldo industriala?	Bai.		
Zuk edo ingurukoek industrian lan egin zenuten? Non? Zertan?	Berak ez, bere ingurukoek bai (Babcock & Wilcox eta AHVan).		
Zure bizitzaren funtsezko parte / identitate markatzaile bezala ulertzen duzu Barakaldo industriala? Zergatik?	Gaur egun hainbeste ez. Lehen Barakaldo jendez josia, horren galera azpimarratu du.		
Bizi izan zenuen desindustrializazioa? Nola? Pertzepzioa.	Bai. Lehen kanpotiko jende asko, industria anitzak —gaur egun hori faltan bota—.		
3. BLOKEA. Informantea ondarea kudeatzeko aktore gisa.			
Inoiz egon al zara Barakaldoko iragan industriala ezagutzeko museo/proiektu/erakusketaren baten?	Ez.		
Uste duzu gerazten dela iragan horren hondarrik? 5 adibide emateko gai izango zinateke?	Ez da ia ezer ez geratzen, Ansio eta AHVen falta nabaria. Gasolinoa.		
Egotekotan, uste duzu babesturik daudela? Ezezkoan, babestuta egotea nahiko zenuke?	Ez daki, baina badaki “muertos del asco” daudela.  Bai.		

<sup>15</sup> Hurrengo fitxetan ageritako informazioa laburtu eta hausnartua dago, jada eskematizatua.

<sup>16</sup> Ez bada argazkirik agertzen, informanteen nahia errespetatu aldera izan da.




<p><b>Bideratu beharko litzateke dirua ondare industrialara kontserbatzeko? Hala bada, zerk du lehentasuna? (makina, langile-etxeak ...)</b></p>	<p>Bai. Langileen etxeak azpimarratu. Salatu Gasolina kentzeko arriskua.</p>
<p><b>Zein da ondarea kudeatzeko nahiago duzun formula? Berrerabilpena, fatxada kontserbazioa ...</b></p>	<p>Ondo geratu da fatxadarena, baina ez da nahiko, beste gauzak ere egin behar.</p>
<p><b>Gustatuko litzaizuke ondarearen gaineko erabakietan parte hartzea (udalak proposatutako galdetegi edota adituekin parte-hartuz)? Zergatik?</b></p>	<p>Ez daki.</p>

### ERANSKIN 3. Bigarren elkarrizketaren informazio-fitxa

1. BLOKEA. Elkarrizketatuaren profila			
Elkarrizketaren data	2023/03/23	Lekua	Herri zentroa
Argazkia	Izen-abizenak	Juan Carlos Andrades Castander	
	Adina	45 urte.	
	Jaioterria (Barakaldokoa ez izatekotan nongoa, zergatik Barakaldora etorria)	Barakaldo.	
2. BLOKEA. Informantearen esperientzia, erabiltzaile historiko gisa.			
Bizi al duzu Barakaldo industrialia?	Azkeneko momentuak.		
Zuk edo ingurukoek industrian lan egin zenuten? Non? Zertan?	Aita izan zuen la Navalen ontzioletan soldatzaile gisa lan egiten.		
Zure bizitzaren funtsezko parte / identitate markatzaile bezala ulertzen duzu Barakaldo industrialia? Zergatik?	Bai. Markatu duelako Barakaldoko historia.		
Bizi izan zenuen desindustrializazioa? Nola? Pertzepzioa.	Bai. Aurreko Barakaldo zen gaurkoa baino hobea, dena zerbitzuak izanik lan-kalitatea okerragoa delako.		
3. BLOKEA. Informantea ondarea kudeatzeko aktore gisa.			
Inoiz egon al zara Barakaldoko iragan industrialia ezagutzeko museo/proiektu/ erakusketaren baten?	Bai. Lutxanako Orconera pabiloietako erakusketan.		
Uste duzu gerazten dela iragan horren hondarrik? 5	Ez daki.		

<b>adibide emateko gai izango zinateke?</b>	
<b>Egotekotan, uste duzu babesturik daudela? Ezezkoan, babestuta egotea nahiko zenuke?</b>	Abandonatuak daude, nahiz eta erakusketarako utzi izan kargalekuren bat.  Bai.
<b>Bideratu beharko litzateke dirua ondare industrialak kontserbatzeko? Hala bada, zerk du lehentasuna? (makina, langile-etxeak ... )</b>	Bai. Ez daki.
<b>Zein da ondarea kudeatzeko nahiago duzun formula? Berrerabilpena, fatxada kontserbazioa ...</b>	Beste erabilera bat ematea eraikinei, estruktura mantenduz.
<b>Gustatuko litzateke ondarearen gaineko erabakietan parte hartzea (udalak proposatutako galdetegi edota adituekin parte-hartuz)? Zergatik?</b>	Bai. Barakaldoko biztanleek bere iritzia emateko.

## ERANSKIN 4. Hirugarren elkarrizketaren informazio-fitxa

1. BLOKEA. Elkarrizketatuaren profila			
Elkarrizketaren data	2023/03/23	Lekua	Herri zentroa
Argazkia	Izen-abizenak	María Concepción Ramales	
	Adina	39	
	Jaioterria (Barakaldokoa ez izatekotan nongoa, zergatik Barakaldora etorria)	Ez. Nikaraguan jaioa, Bizkaiara lan bila etorria. Barakaldon 6 hilabete.	
2. BLOKEA. Informantearen esperientzia, erabiltzaile historiko gisa.			
Bizi al duzu Barakaldo industrialia?	Ez.		
Zuk edo ingurukoek industrian lan egin zutenen? Non? Zertan?	Ez.		
Zure bizitzaren funtsezko parte / identitate markatzaile bezala ulertzen duzu Barakaldo industrialia? Zergatik?	Bai, hemengoentzat asko.		
Bizi izan zenuen desindustrializazioa? Nola? Pertzepzioa.	Ez.		
3. BLOKEA. Informantea ondarea kudeatzeko aktore gisa.			
Inoiz egon al zara Barakaldoko iragan industrialia ezagutzeko museo/proiektu/ erakusketaren baten?	Ez du oraindik aukerarik izan.		
Uste duzu gerazten dela iragan horren hondarrik? 5 adibide emateko gai izango zinateke?	Hemen informanteak baserri eta burdinolei buruz hitz egiten hasi zen, bertan lan egin izan zuelako.		


<b>Egotekotan, uste duzu babesturik daudela? Ezezkoan, babestuta egotea nahiko zenuke?</b>	Suposatzen du. Bai.
<b>Bideratu beharko litzateke dirua ondare industrialak kontserbatzeko? Hala bada, zerk du lehentasuna? (makina, langile-etxeak ...)</b>	Bai. Nahiz eta askotan lehentasuna eman monumentuei, elementu desberdinek izan behar dute aukera berdina.
<b>Zein da ondarea kudeatzeko nahiago duzun formula? Berrerabilpena, fatxada kontserbazioa ...</b>	Erabilera berria eman hobe, eta birmoldaketa osoa nahiago fatxadaren mantenu soila baino.
<b>Gustatuko litzaizuke ondarearen gaineko erabakietan parte hartzea (udalak proposatutako galdetegi edota adituekin parte-hartuz)? Zergatik?</b>	Bai. Garrantzitsua parte-hartzea bere presentzia izateko.

## ERANSKIN 5. Laugarren elkarrizketaren informazio-fitxa

1. BLOKEA. Elkarrizketatuaren profila			
Elkarrizketaren data	2023/03/23	Lekua	Herri zentroa
Argazkia	Izen-abizenak	María Rosario Lara	
	Adina	83 urte.	
	Jaioterria (Barakaldokoa ez izatekotan nongoa, zergatik Barakaldora etorria)	Barakaldo.	
2. BLOKEA. Informantearen esperientzia, erabiltzaile historiko gisa.			
Bizi al duzu Barakaldo industrialia?	Bai.		
Zuk edo ingurukoek industrian lan egin zenuten? Non? Zertan?	Bera ez, baina bere ingurukoek bai —AHV nagusiki—.		
Zure bizitzaren funtsezko parte / identitate markatzaile bezala ulertzen duzu Barakaldo industrialia? Zergatik?	Bai.		
Bizi izan zenuen desindustrializazioa? Nola? Pertzepzioa.	Bai. Pena eman zion. Lan eta jende aberastasuna faltan botatzen du.		
3. BLOKEA. Informantea ondarea kudeatzeko aktore gisa.			
Inoiz egon al zara Barakaldoko iragan industrialia ezagutzeko museo/proiektu/ erakusketaren baten?	Ez.		

<b>Uste duzu gerazten dela iragan horren hondarrik? 5 adibide emateko gai izango zinateke?</b>	Ez daki.
<b>Egotekotan, uste duzu babesturik daudela? Ezezkoan, babestuta egotea nahiko zenuke?</b>	Ez daki.  Bai. Barakaldoko zerbait delako, historiarena.
<b>Bideratu beharko litzateke dirua ondare industrialia kontserbatzeko? Hala bada, zerk du lehentasuna? (makina, langile-etxeak ... )</b>	Dirua kontu sozialetara bideratzea ikusten du garrantzitsuago.  Dudarik gabe lagile-etxeen kontserbazioak lehentasuna du.
<b>Zein da ondarea kudeatzeko nahiago duzun formula? Berrerabilpena, fatxada kontserbazioa ...</b>	Ziren bezala kontserbatu behar, ez soilik fatxada mantendu. Hoberena hiltegiarekin eginikoaren antzekoak, erabilera berria.
<b>Gustatuko litzaizuke ondarearen gaineko erabakietan parte hartzea (udalak proposatutako galdetegi edota adituekin parte-hartuz)? Zergatik?</b>	Egia esan, ez. <i>“Soy muy vieja ya para esas cosas”</i> .

## ERANSKIN 6. Bosgarren elkarrizketaren informazio-fitxa

1. BLOKEA. Elkarrizketatuaren profila			
Elkarrizketaren data	2023/03/23	Lekua	Herri zentroa
Argazkia	Izen-abizenak	Javier Gómez	
	Adina	41 urte.	
	Jaioterria (Barakaldokoa ez izatekotan nongoa, zergatik Barakaldora etorria)	Barakaldo.	
2. BLOKEA. Informantearen esperientzia, erabiltzaile historiko gisa.			
Bizi al duzu Barakaldo industrialia?	Pixka bat.		
Zuk edo ingurukoek industrian lan egin zenuten? Non? Zertan?	Berak ez, Aitak —Babcock & Wilcoxean— eta beste inguruko ezagunak bai.		
Zure bizitzaren funtsezko parte / identitate markatzaile bezala ulertzen duzu Barakaldo industrialia? Zergatik?	Bai. Bere gurasoek beste erkidego batetik etorri ziren lan bila.		
Bizi izan zenuen desindustrializazioa? Nola? Pertzepzioa.	Bai. Itxi egin ziren industriak eta grisa desagertuz joan zen. Orain berdeago, politagoa.		
3. BLOKEA. Informantea ondarea kudeatzeko aktore gisa.			
Inoiz egon al zara Barakaldoko iragan industrialia ezagutzeko museo/proiektu/ erakusketaren baten?	Bai. Gallartako meatzaritza museoan eta itsasadarreko kargalekuetan.		
Uste duzu gerazten dela iragan horren hondarrik?	Mineral-kargalekuak.		



<b>5 adibide emateko gai izango zinateke?</b>	
<b>Egotekotan, uste duzu babesturik daudela? Ezezkoan, babestuta egotea nahiko zenuke?</b>	Bai.  Ez badute Barakaldo hobetzeko eragozpenik jartzen, bai.
<b>Bideratu beharko litzateke dirua ondare industrialara kontserbatzeko? Hala bada, zerk du lehentasuna? (makina, langile-etxeak ... )</b>	Bai. Ezer ez du lehentasunik, berdinki.
<b>Zein da ondarea kudeatzeko nahiago duzun formula? Berrerabilpena, fatxada kontserbazioa ...</b>	Beste erabilera bat eman.
<b>Gustatuko litzaizuke ondarearen gaineko erabakietan parte hartzea (udalak proposatutako galdetegi edota adituekin parte-hartuz)? Zergatik?</b>	Bai. Barakaldoko herriaren iritziak berak garrantzia handiduna izan beharko zen.

## ERANSKIN 7. Seigarren elkarrizketaren informazio-fitxa

1. BLOKEA. Elkarrizketatuaren profila			
Elkarrizketaren data	2023/03/23	Lekua	Herri zentroa
Argazkia	Izen-abizenak	Victor Manuel Santos	
	Adina	49 urte.	
	Jaioterria (Barakaldokoa ez izatekotan nongoa, zergatik Barakaldora etorria)	Barakaldo.	
2. BLOKEA. Informantearen esperientzia, erabiltzaile historiko gisa.			
Bizi al duzu Barakaldo industrialia?	Bai.		
Zuk edo ingurukoek industrian lan egin zenuten? Non? Zertan?	Berak eta bere ingurukoek eraikuntzan lan egin zuten gehienbat.		
Zure bizitzaren funtsezko parte / identitate markatzaile bezala ulertzen duzu Barakaldo industrialia? Zergatik?	Bai. Industria egon ez balitz, Barakaldo ez zen izango oraingoa.		
Bizi izan zenuen desindustrializazioa? Nola? Pertzepzioa.	Bai. Industriako langileentzat traumatikoa izan zen, batez ere AHV eta Ansion.		
3. BLOKEA. Informantea ondarea kudeatzeko aktore gisa.			
Inoiz egon al zara Barakaldoko iragan industrialia ezagutzeko museo/proiektu/ erakusketaren baten?	Ez.		
Uste duzu geratzen dela iragan horren hondarrik?	Ez du uste geratzen direnik.		

<b>5 adibide emateko gai izango zinateke?</b>	
<b>Egotekotan, uste duzu babesturik daudela? Ezezkoan, babestuta egotea nahiko zenuke?</b>	Egotekotan, bai.  Bai.
<b>Bideratu beharko litzateke dirua ondare industrialara kontserbatzeko? Hala bada, zerk du lehentasuna? (makina, langile-etxeak ... )</b>	Bai, baina aferaz zaila. Berdin dio, ezerk ez du lehentasunik.
<b>Zein da ondarea kudeatzeko nahiago duzun formula? Berrerabilpena, fatxada kontserbazioa ...</b>	Zaila da espekulazio koiuntura honetan, baina zaharberritze eta berrerabilpena nahiago.
<b>Gustatuko litzaizuke ondarearen gaineko erabakietan parte hartzea (udalak proposatutako galdetegi edota adituekin parte-hartuz)? Zergatik?</b>	Ez du uste bere iritzia kontuan izango denik.

## ERANSKIN 8. Zazpigarren elkarrizketaren informazio-fitxa

1. BLOKEA. Elkarrizketatuaren profila			
<b>Elkarrizketaren data</b>	2023/03/23	<b>Lekua</b>	Herri zentroa
<b>Argazkia</b>	<b>Izen-abizenak</b>	Casandra Antonella Córdoba	
[Argazki gabe]	<b>Adina</b>	28 urte.	
	<b>Jaioterria (Barakaldokoa ez izatekotan nongoa, zergatik Barakaldora etorria)</b>	Argentina. Bere bikotea dela eta etorria.	
2. BLOKEA. Informantearen esperientzia, erabiltzaile historiko gisa.			
<b>Bizi al duzu Barakaldo industrialia?</b>		Ez.	
<b>Zuk edo ingurukoek industrian lan egin zenuten? Non? Zertan?</b>		Suposatzen du bere bikotearen ingurukoek baietz, baina ez daki.	
<b>Zure bizitzaren funtsezko parte / identitate markatzaile bezala ulertzen duzu Barakaldo industrialia? Zergatik?</b>		Suposatzen du baietz.	
<b>Bizi izan zenuen desindustrializazioa? Nola? Pertzepzioa.</b>		Ez.	
3. BLOKEA. Informantea ondarea kudeatzeko aktore gisa.			
<b>Inoiz egon al zara Barakaldoko iragan industrialia ezagutzeko museo/proiektu/erakusketaren baten?</b>		Ez du oroitzen.	
<b>Uste duzu gerazten dela iragan horren hondarrik? 5 adibide emateko gai izango zinateke?</b>		Ez daki.	
<b>Egotekotan, uste duzu babesturik daudela? Ezezkoan, babestuta egotea nahiko zenuke?</b>		Bai, suposatzen du. Bai.	
<b>Bideratu beharko litzateke dirua ondare industrialia kontserbatzeko? Hala bada, zerk du lehentasuna? (makina, langile-</b>		Bai. Denak du garrantzia, ezerk lehentasunik.	


etxeak ... )	
<b>Zein da ondarea kudeatzeko nahiago duzun formula? Berrerabilpena, fatxada kontserbazioa ...</b>	Berrerabilpenaren alde sutsuki.
<b>Gustatuko litzaizuke ondarearen gaineko erabakietan parte hartzea (udalak proposatutako galdetegi edota adituekin parte-hartuz)? Zergatik?</b>	Bai. Uste du garrantzitsua dela herritarrak inplikatzeko eta guztien artean erabakitzea nora dihoa dirua eta zertarako.

## ERANSKIN 9. Zortzigarren elkarrizketaren informazio-fitxa

1. BLOKEA. Elkarrizketatuaren profila			
<b>Elkarrizketaren data</b>	2023/03/23	<b>Lekua</b>	Herri zentroa
<b>Argazkia</b>	<b>Izen-abizenak</b>	Montse Osa	
[Argazki gabe]	<b>Adina</b>	47 urte	
	<b>Jaioterria (Barakaldokoa ez izatekotan nongoa, zergatik Barakaldora etorria)</b>	Barakaldo.	
2. BLOKEA. Informantearen esperientzia, erabiltzaile historiko gisa.			
<b>Bizi al duzu Barakaldo industrialia?</b>		Bai.	
<b>Zuk edo ingurukoek industrian lan egin zenuten? Non? Zertan?</b>		Ez, baina ingurukoek bai, AHVan.	
<b>Zure bizitzaren funtsezko parte / identitate markatzaile bezala ulertzen duzu Barakaldo industrialia? Zergatik?</b>		Bai. Txikia zenetik hori ikusi duelako.	
<b>Bizi izan zenuen desindustrializazioa? Nola? Pertzepzioa.</b>		Bai. Momentuan aldaketa bortitza, orain Barakaldo berdeagoa, garbiagoa.	
3. BLOKEA. Informantea ondarea kudeatzeko aktore gisa.			
<b>Inoiz egon al zara Barakaldoko iragan industrialia ezagutzeko museo/proiektu/erakusketaren baten?</b>		Ez.	
<b>Uste duzu gerazten dela iragan horren hondarrik? 5 adibide emateko gai izango zinateke?</b>		Orconerako pabiloiak Lutxanan.	
<b>Egotekotan, uste duzu babesturik daudela? Ezezkoan, babestuta egotea nahiko zenuke?</b>		Bai. Bai.	
<b>Bideratu beharko litzateke dirua ondare industrialia kontserbatzeko? Hala bada, zerk du lehentasuna? (makina, langile-etxeak ...)</b>		Jada bideratzen du. Denak du balioa, ezerk lehentasuna merezi.	

<b>Zein da ondarea kudeatzeko nahiago duzun formula? Berrerabilpena, fatxada kontserbazioa ...</b>	Mota guztietako kudeaketak ondo ikusten ditu.
<b>Gustatuko litzaizuke ondarearen gaineko erabakietan parte hartzea (udalak proposatutako galdetegi edota adituekin parte-hartuz)? Zergatik?</b>	Bai. Naturala iruditzen zaio herritarrei galdetzea.

## ERANSKIN 10. Bederatzigarren elkarrizketaren informazio-fitxa

1. BLOKEA. Elkarrizketatuaren profila			
Elkarrizketaren data	2023/04/06	Lekua	Lutxana auzoa
Argazkia	Izen-abizenak	Roberto Montalbán Trueba	
	Adina	84 urte.	
	Jaioterria (Barakaldokoa ez izatekotan nongoa, zergatik Barakaldora etorria)	Barakaldo (Lutxana).	
2. BLOKEA. Informantearen esperientzia, erabiltzaile historiko gisa.			
Bizi al duzu Barakaldo industrialia?	Bai.		
Zuk edo ingurukoek industrian lan egin zenuten? Non? Zertan?	Berak inprenta txiki bat zuen Lutxanan, baina ingurukoek AHV, Franco-Belga, Orconera eta gerora Sefanitron lan egiten zuten.		
Zure bizitzaren funtsezko parte / identitate markatzaile bezala ulertzen duzu Barakaldo industrialia? Zergatik?	Bai, Barakaldoko historiaren puntu garrantzitsuena.		
Bizi izan zenuen desindustrializazioa? Nola? Pertzepzioa.	Bai. "Desastre total", langabezia, zerbitzu-gizartea orain. Orain berdeagoa bai.		
3. BLOKEA. Informantea ondarea kudeatzeko aktore gisa.			
Inoiz egon al zara Barakaldoko iragan industrialia ezagutzeko museo/proiektu/ erakusketaren baten?	Bai, Lutxanako Orconera pabiloiko bisita.		



<b>Uste duzu gerazten dela iragan horren hondarrik? 5 adibide emateko gai izango zinateke?</b>	Bai. Ercoseko pabiloia, kargalekuak, Orconera pabiloiak.
<b>Egotekotan, uste duzu babesturik daudela? Ezezkoan, babestuta egotea nahiko zenuke?</b>	Ez, erdi-suntsituta daude.  Noski baietz.
<b>Bideratu beharko litzateke dirua ondare industrialara kontserbatzeko? Hala bada, zerk du lehentasuna? (makina, langile-etxeak ... )</b>	Bai, igual badaude beste premia batzuk baina aurrekontuaren parte bai.  Langile-etxeak bere kabuz mantentzen dira jendea bizi delako.
<b>Zein da ondarea kudeatzeko nahiago duzun formula? Berrerabilpena, fatxada kontserbazioa ...</b>	Diru- eta interesen afera bat da. Oro har, ondo dago beste erabilera bat ematea.
<b>Gustatuko litzaizuke ondarearen gaineko erabakietan parte hartzea (udalak proposatutako galdetegi edota adituekin parte-hartuz)? Zergatik?</b>	Bai. Udalak jada abiatzen ari ditu galderak auzokoei auzoen gaineko kudeaketaren inguruan.

## ERANSKIN 11. Hamargarren elkarrizketaren informazio-fitxa

1. BLOKEA. Elkarrizketatuaren profila			
Elkarrizketaren data	2023/04/06	Lekua	Lutxana auzoa
Argazkia	Izen-abizenak	Miguel Granados	
[Argazki gabe]	Adina	36 urte.	
	Jaioterria (Barakaldokoa ez izatekotan nongoa, zergatik Barakaldora etorria)	Bilbon jaioa, baina Barakaldon hazia.	
2. BLOKEA. Informantearen esperientzia, erabiltzaile historiko gisa.			
Bizi al duzu Barakaldo industrialia?		Bai.	
Zuk edo ingurukoek industrian lan egin zenuten? Non? Zertan?		Berak ez, baina inguruko lagun, auzoko eta familiakoek bai —AHV eta Sefanitron—.	
Zure bizitzaren funtsezko parte / identitate markatzaile bezala ulertzen duzu Barakaldo industrialia? Zergatik?		Bai. Aldaketa markatzaile izan delako.	
Bizi izan zenuen desindustrializazioa? Nola? Pertzepzioa.		Bai. Galera pertzepzioa, langabezia eta erregenerazioa. Barakaldoren transformazioa zerbitzu eta etxebizitza-hirira.	
3. BLOKEA. Informantea ondarea kudeatzeko aktore gisa.			
Inoiz egon al zara Barakaldoko iragan industrialia ezagutzeko museo/proiektu/erakusketaren baten?		Bai. Gallartako meatzaritza museoan, Lutxanako Orconera pabiloian eta El Regatoko museoan.	
Uste duzu gerazten dela iragan horren hondarrik? 5 adibide emateko gai izango zinateke?		Itsadarreko garabiak, kargalekuak, urtegiak eta Orconerako pabiloia.	
Egotekotan, uste duzu babesturik daudela? Ezezkoan, babestuta egotea nahiko zenuke?		Ez du uste babesturik daudenik.  Bai. Konturatu zen horien premiaz etxe ingelesak bota zituztenean, zerbitzu publikoetara bideratuak izango zirenak teorikoki.	

<b>Bideratu beharko litzateke dirua ondare industrialara kontserbatzeko? Hala bada, zerk du lehentasuna? (makina, langile-etxeak ...)</b>	Bai. Ba gutxi geratzen den horren artean dena kontserbatu beharko zen. Salatzen du langile-etxeen arrisku jarraitua. Batez ere Lutzana nabarmentzen du.
<b>Zein da ondarea kudeatzeko nahiago duzun formula? Berrerabilpena, fatxada kontserbazioa ...</b>	Birgaitu eta berrerabili bai, baina erabilera publiko baterako. Fatxadismoak "ez du zentzurik".
<b>Gustatuko litzaizuke ondarearen gaineko erabakietan parte hartzea (udalak proposatutako galdetegi edota adituekin parte-hartuz)? Zergatik?</b>	Gustatuko litzaioke, baina esperientziak alferrekoa dela erakutsi dio, batez ere behin eta berriro Lutzanan gertatzen diren porrotak direla eta.

## ERANSKIN 12. Hamaikagarren elkarrizketaren informazio-fitxa

1. BLOKEA. Elkarrizketatuaren profila			
<b>Elkarrizketaren data</b>	2023/04/06	<b>Lekua</b>	Lutxana auzoa
<b>Argazkia</b>	<b>Izen-abizenak</b>	Iratxe Sebastián	
[Argazki gabe]	<b>Adina</b>	45 urte.	
	<b>Jaioterria</b> (Barakaldokoa ez izatekotan nongoa, zergatik Barakaldora etorria)	Barakaldokoa, Zuazo auzoan jaioa orain Lutxanan bizi bada ere.	
2. BLOKEA. Informantearen esperientzia, erabiltzaile historiko gisa.			
<b>Bizi al duzu Barakaldo industrialia?</b>		Bai.	
<b>Zuk edo ingurukoek industrian lan egin zenuten? Non? Zertan?</b>		Berak ez, baina familian aititeek bai, AHVetan.	
<b>Zure bizitzaren funtsezko parte / identitate markatzaile bezala ulertzen duzu Barakaldo industrialia? Zergatik?</b>		Bere bizitzan ez, Barakaldoko identitatean bai, markatu egin duelako garai eta belaunaldi anitzak.	
<b>Bizi izan zenuen desindustrializazioa? Nola? Pertzepzioa.</b>		Bai. Momentuan gogorra, luzera asko galdu dela nabaritu —pandemian zerbitzuen gorentasun hori oso nabaria izan da—.	
3. BLOKEA. Informantea ondarea kudeatzeko aktore gisa.			
<b>Inoiz egon al zara Barakaldoko iragan industrialia ezagutzeko museo/proiektu/erakusketaren baten?</b>		Bai, noizean behin egiten diren argazki erakusketak.	
<b>Uste duzu gerazten dela iragan horren hondarrik? 5 adibide emateko gai izango zinateke?</b>		Bai. Lutxanako Orconera pabiloiak, El Regatoko museoan dauden gauzak ... Baina oso gutxi geratzen da.	
<b>Egotekotan, uste duzu babesturik daudela? Ezezkoan, babestuta egotea nahiko zenuke?</b>		Bai, baina oso berandu hasi da babesten. Bai.	
<b>Bideratu beharko litzateke dirua ondare industrialia kontserbatzeko? Hala bada, zerk du lehentasuna? (makina, langile-</b>		Bai, moderatua. Denetarik pixka bat kontserbatzea hobeto.	

etxeak ... )	
<b>Zein da ondarea kudeatzeko nahiago duzun formula? Berrerabilpena, fatxada kontserbazioa ...</b>	Berrerabileraren guztiz alde, aktibitateetarako kontserbazioa ziurtatzen da eta gainera historia bizirik dirau. Informazio-plaka gehiago egotea ondo, langile-etxeetan adibidez.
<b>Gustatuko litzaizuke ondarearen gaineko erabakietan parte hartzea (udalak proposatutako galdetegi edota adituekin parte-hartuz)? Zergatik?</b>	Bai. Egin daitekeela uste du, jada udalak aurrekontuaren kudeaketarako iritzia eskatu duelako.

---

**ERANSKIN 13.**<sup>17</sup> *Orconera pabiloien sarreran jarraitzen duen plaka, nahiz eta oraindik Teknika Museoa ez jaso bertan.*



---

<sup>17</sup> Jarraian ageriko diren argazki guztiak, diskurtsoan ageritakoaren osagarri dira eta, bertan txertatuak izan direnak bezala, egileak berak eginak dira.

---

**ERANSKIN 14.** *Gasolinoa eta Erandioko ontziralekua (Barakaldotik hartua).*



---

**ERANSKIN 15.** *Sefanitroaren aztarnak (Lutxanatik hartua).*





---

**ERANSKIN 16.** *Orconerako pabiloi bat, gaur makinaria industrialeko erakusketa duena.*



---

**ERANSKIN 17.** *Bilbao Exhibition Centrea (BEC), Ansio industrial ohiaren erdia hartzen duena.*



---

**ERANSKIN 18.** *Hizkuntza Eskola (atzean), antzinako udal hiltegia, Barakaldoko egunerokotasunean mimetizatu egin den ondarea.*



---

**ERANSKIN 19.** *Dolores Ibarri paseoko bidegorria. Franco-Belgaren trenbide ohiaren gaur dirauen azpiegitura-multzoaren parte den tunel-modukoa.*



---

**ERANSKIN 20, 21 eta 22.** *La Roblako geltokiaren aztarnak (Lutxanakoarekin eraikin partekatzen duena); burdinbidean kontserbatutako beste egitura monumentalen bat.*



---

**ERANSKIN 23.** *Alzola zubia (Barakaldotik ikusia). Lanean esan bezala ailegatu eta ikusteko zailtasun handiko elementua.*




---

**ERANSKIN 24.** *Ansion dagoen AHVko Labe Garai baten maketa.*



---

**ERANSKIN 25 eta 26.** *El Regatoko Barakaldoko Historia eta Ingurumena Interpretatzeko Zentroan erakusketarako dagoen Sefanitroren maketa (Barakaldoko Lan Eskolak 1950an egina eta Sefanitrok 1989an berrikusia). Maketaren azalpen plaka eta xehetasuna (kargalekua atzean).*





---

**ERANSKIN 27, 28 eta 29.** Autopista behean ageritako industriarekin erlazionatutako irudiak.



---

**ERANSKIN 30 eta 31.** *Industriak paisaian utzitako hutsuneak: Lutxana eta Ansio.*

